



ARGIA

IRUÑEKO ALDE ZAHARRA

TURISMOA GORA AUZOA GAINBEHERA

» PATXI BAZTARRIKA HIZKUNTZA POLITIKAZ

» ANDONI TOLOSA "MORAU" MUSIKAZ, ALZHEIMERRAZ ETA ZAINTZAZ

» HELEN CLARK: ZEELANDA BERRIKO LEHEN MINISTRO OHIA

» GALA PIN: ETXEGABETZEEN AURKAKO MUGIMENDUAN DABILEN BARTZELONAKO ZINEGOTZIA

INMOBILIARI
VENDE
948 221 54
www.inmo31.e

Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Poliziaren gas potoak, jendeak sakabanatzeko arma kimiko hutsak

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Eneko Gorri
- 19 Iñaki Barcena
- Miren Artetxe Sarasola
- 20 Bea Salaberri



Gas negar eragileak arma kimikoak dira, 1920ko hamarkadatik herritarren mobilizazioak zapuzteko prestatuak. Negozio handia dago atzean.

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: GALA PIN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Patxi Baztarrika: "Euskaldunaren aktibazioa lehentasuna da" / Miel A. Elustondo
- 22 | Iruñeko Alde Zaharra: Turismo masiboaren atzaparretatik ihesi / Xabier Letona
- 27 | Injustizia eta erresistentzia XVIII. mendean: *Tretatxu*, lapurren gobernadorea / Urko Apaolaza Avila
- 30 | Ikaskideak, laguntzaile onenak / Ainhoa Bretos
- 32 | Helen Clark, Zeelanda Berriko lehen ministro ohiarekin elkarrizketa / Amaia Zabala Tolosa
- 36 | Osakidetza: 215.000 herritarrek eskatu diote euskaraz artatzeko / Igor Agirre
- 38 | Hizkuntza Eskubideen Protokoloa: Euskal bertsioa ontzen ari dira 80 eragile / Onintza Irureta Azkune
- 44 | *Morau*: "Jende askok zaintza lanetan bizitakoak partekatzeko beharra du" / Lander Arretxea Bereziartua

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus





PANORAMA

70 urte eta Davidek ez du etsi

Israelgo Estatu sionistak 70 urte bete ditu maiatzaren 14an. Ezin laburbildu liteke lerro hauetan 70 urteotan eragindako minaren zerrenda, palestinar, siriar eta libanoarrei indarrez lapurtutako lurretan. Lehen oparia Anaia Handiaren eskutik etorri zaie: enbaxada Jerusalem-era mugitu dute AEBek. Hala, okupazioari hamaikagarren berrespen sinbolikoa emateaz gain, argi utzi dute AEBen estrategia berria Ekialde Hurbilarekiko: zonaldea azpiratu eta kontrolatzen jarraitzeko ardura beren proxy-ei helarazi die. Nagusiki, bi: Saudi Arabia eta Israel. Eta bien bitartean, harriek hegan jarraitzen dute tanke eta droneen aurka. Gazan, martxoaren 30etik ostiralero Israelgo mugara martxa egiten ari dira milaka palestinar. Ordutik Israelgo frankotiratzailleek 47 hil –horietatik 5 ume– eta 8.536 palestinar zauritu dituzte, horietatko 166 egoera larrian dirêla. Goliath indartsu dago, oso, AEBen hegalpean eta nazioarteko komunitatearen pasibitatearen aurrean. Baina 70 urtez Davidek erakutsi du erresistitzen jaioa dela, baita, beharrezkoa bada, hankarik gabe ere. Irudia: maiatzaren 11ko Gazako martxa.

Argazkia: Ohammed Zaanoun (Active Stills kolektiboa) · Testua: Axier Lopez

Realeko emakumeek lehen aldiz jokatu dute Anoetan, Athletic-en aurka. Partiduak 21.500 zale bertaratu ditu.

t “Historiarako lehen argazkia. Askoz gehiago egongo dira”
@RealSociedadEUS

t “Hau beste ‘ni ere han egon nintzen’ bat da, ezta? #Harroeta”
@mikeliriarte

t “Jende mordo zutik Anoetako harmaila nagusian, tokia aurkitu ezinik. Antza Realak ez zuen espero hainbeste bazkide etorriko zirenik. Gizartea beti pauso bat aurretik”
@amaiaportugal

t “Ni ez naiz joan Anoetara Realaren zuzendaritzaren erabakia txalotzera. Ni joan naiz Realak emakumeen aldeko erabaki gehiago har ditzan presionatzera”
@martin_kitto

www “Baldintzen berdintze, soldata duin eta 8 orduko kotizazioaren aldeko aldarrikapena ere bada”
Mikel Garate



Quim Torra Katalunian presidente, CUPen abstentzioari esker

Maddi Txintxurreta
@mtxintxurreta

Junts per Catalunya eta ERCren aldeko botoei eta CUPeko lau diputaturen abstentzioari esker lortu du Quim Torrak Kataluniako Gobernuaren lidergoa. CUPek Cerveran egindako Batzar Politikoan erabaki du ez blokeatzea Torraren inbestidura.

Hamabi lurralde desberdinetako CUPeko 67 kidek bozkatu dute Cerveran presidentegai berriaren etorkizunari buruz: Torra presidente bihurtu “bai” edo abstentzio bidez, edo bere inbestidura eraitsi ezezkua bozkatzuz. Bozketaren emaitzak ez direla aho-batekoak izan argitu du CUPek, eta horregatik Torraren hautagaitza “ez blokeatzea” erabaki

dutela, kontuan izanda “errepresioaren eta Estatuaren parteko eskubide zibil eta politikoen urraketen” momentuan bizi direla. Alabaina, nabarmendu dute “oposizio aktiboa” egingo dutela, “Errepublikak egiteko” bidean “aurrerago joateko”.

Albert Rivera Ciudadanoseko buruak ostegunean esan zuenez, presidente berria egonda ere Konstituzioaren 155. artikuluko indarrean jarraitu beharko luke Katalunian, gobernu berriak ez baldin badu “legea” eta estatutua “errespetatzeko” konpromisorik hartzen.

Bestalde, Espainiako hainbat alderdi eta hedabidek, *El País* eta PPko Xavier Garcia Albiol kasu, “espainiarrekiko xenofobia” izatea egotzi diote presidente berriari.

“Norberaren heriotzaz erabakitzea jada ez da tabua”

ALBA VERGÉS, ERC-KO DIPUTATUA

Eutanasia ez zigortzeko lege proposamenaren tramiteei argi berdea eman die Espainiako Kongresuak. PPK eta UPNk kontra bozkatu dute, Ciudadanos abstenitu egin da eta gainerako alderdiek alde bozkatu dute. “Gizartearen gehiengoak nahi duena lege bihurtzea du helburu proposamenak. Norberaren heriotzaz erabakitzea jada ez da tabua”, adierazi du Vergések. Lege proposamenak, ordea, traba handiak izan ditzake: PP, UPN eta Ciudadanos batuta, nahikoa aulki ditzute tramitazio epeak nahi adina atzeratzen joateko. **2018-05-08**



ANALISIA



Bermeo Tuna World Capital: *euskalenglish* izurritearen azkena



Axier Lopez
@axierL

Gorbeia Central Park, Goierri Valley, Enkarterri Fest Gourmet Festival, Itzulia Basque Country, San Sebastian International Film Festival (SSIFF), Basque Culinary Center, Elgoibarko Digital Grinding Innovation Hub, Urdaibai Bird Center, Bilbao Port, San Sebastian Region, Gasteiz Green Capital, Surfing the Basque Country, Zumaia Flysch Trail, Bilbao Exhibition Center... Bermeoko Arrain Azokak ez du *standby* egoeran geratu izan nahi, eta Euskal Herrian gainetik kendu ezin dugun *marketing* probintzia-noaren *crew*-ra batu da.

Urtero legez Bermeoko Arrain Azoka antolatuko dute maiatzaren 18tik 20ra. Berritasunen artean Bermeo Tuna World Capital izeneko proiektua sortu dute, Azti, Pie-EHU, Hazi eta Eroski buru. "Ohi-turek eta berrikuntzek bat egingo dute" 300 metro karratuko espazioan, adibidez, atunarekin lotutako ekimenen artean, Basque Culinary Centerrek *showcooking*-a eskainiko du BTWC-ko *stand*-ean.

Kostaldeko herrietan aurki ditza-kegun XXX (ipini nahi duzun arraina) egunen modukoa da. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Baina aurrean bestelako lustrea eman nahi izan diote. Horretarako, Munduan mintzo diren gainerako 6.000 hizkuntzek ez dauzkaten dirdira, grazia eta modernotasuna erantsi

dizkiote ingelesari esker. Lehen kutsu probintzianoa zuen azoka beste maila batera igo dute. *Win-win* estrategia. Denok irabazle, antza. Hauek nire interpretazioak dira noski, izan ere azalpena, tamalez, askoz sinpleagoa izango baita.

Bilbon MTV edo errugbiarekin nola, ingelesak ingelesdunak ekarriko dituelakoan aritzen dira batzuk ingelesez, *Basque & pintxos* turismo ereduaren sukarrak jota. Baina beste batzuek, eta hau da tristeena, ingelesera jotzen dute nahiz eta jakin haien ekimenak hurbilduko direnak nagusiki euskal herritarrek izango direla. Ingelesa ez baita amu, statusa baizik. Munduko Atunaren Kapitala jartzea bilbokeria da. Tuna World Capital, aldiz, *cool*-a. Eta, bide batez, euskara eta gaztelania/frantsesaren "kuota" gairatzeko ez da trikimailu txarra, ezta?

Izena duen guztia ba omen denez, azkenaldian gure izanaren berrinterpretazio bete-betean gaude. Euskal Herrian egindakoari ingelesezko izendapena jartzeko joera gero eta hedatuago dago, ezker-eskuin, goiti-beheiti.

Bermeon bi "muturrak" elkartu dira. Arrain Azoka iragartzeko bideoa bermeoeraz egin dute osorik. Hori bai, batuan azpitoluak jarrita badaezpada. Halaxe dio pasarte batean: "Guk estaukulako beste ezer, ezpada gure gauzek esateko erie". Bada, antza, hori ere ez zaigu geratzen. Saltzen, saltzen oso onak ei garelako herri honetan, txakur txiki baten, *you know*.

EKONOMIAREN TALAIAN

Elkartasunetik gutxi duen "ezkutu fiskala"



Juan Mari Arregi

EAJ eta PSEk, PPren laguntzaz elkartasunetik gutxi duen zerga-babesa edo "ezkutu fiskala" berpiztu dute Gipuzkoako aberatsenentzat, eta aldi berean menpekotasuna saihesteko laguntzak murriztu dizkie 4.330 familiari. Halaxe da. Gipuzkoako Batzar Nagusiek lehen urratsa eman dute aurreko foru gobernu taldeak ezarritako Fortuna Handien eta Aberastasunaren gaineko zerga derogatzeko. Inposatu nahi duten zerga-ordainketarako sistema berraren parte da neurri hori, eta patronalari mesede handia egingo dio, besteak beste lortu dutelako Sozietate zergako karga-tasa jaistea.

Erreforma fiskalaren memoriak baieztatu du 875 pertsonak gozatu-ko dutela "ezkutu fiskalaz" eta batez beste 38.000 euro gutxiago ekarri-ko dutela Gipuzkoako foru ogasunera. Datu odoltsu eta eskandaluzkoa: lurralde horretako 38 lagun aberatsenek -12,8 milioi eurotik gorako ondarea dutenak- 15 milioi euro aurreztuko dituzte, diru-kutxa publikora ekarri behar izan gabe. Ogasunak Gipuzkoako super-aberatsei 408.316 euro oparituko die batez beste urtero. Bitartean, menpekotasuna saihesteko laguntza behar duten 16.697 lagunek -4.330 familia-murrizketak jasan dituzte: urtean 300 eta 1.000 euro artean.

Pribilegiatuen mesedetan

Gezurra da ez dagoela dirurik diru-kutxa publikorako eta ondorioz murrizketa sozialak egin behar direla; Gipuzkoan ikusten ari gara. Aipatu alderdi horiek, euren zerga politikekin pribilegiatu batzuk zerbitzatzen dituzte. Murrizketen kontrako manifestariei ez zaie arrazoirik falta "hau lapurreta da!" oihukatzen dutenean: "Ez da dirurik falta, lapurrak daude soberan".



ERLANTZ ANDA

Gasteizko Gaztetzeko 30 urteko bidaia liburu bilakatu dute

GASTEIZ. Okupatu aurreko kanpainatik hasita, gaur eguneraino. Kanpora begirako jarduerak zein barne mailako lanak, diskurtsoak eta praktikak, ekimen propioak zein auzokideekin eta herrigintzarekin batera egindakoak, desalojo mehatxuen aurreko kanpaina erraldoi entzutetsuak eta eguneroko lan isila. Une goxoak eta une latzak. Horiek guztiak biltzen ditu *Gasteizko Gaztetzeko 30 urte* liburuak, hiru hamarkada bete dituen muinoko etxearen omenez.

580 milioi euro publiko, bi obra erraldoi egiteko

Amaia Lekunberri

@amaialekunberri

Tamaina eta kostu handiko bi obraren berri eman du Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusiak. Batetik, Bilbo Hegoaldeko Saihesbidea (Supersur) AP-68 autobidearekin lotzeko lanak. Bestetik, Bilboko ibarraren azpitik bi aldeak lotuko dituen ia 3 kilometroko tunela.

Tunelak ibaiazpitik
380 milioi euroko aurrekontua izango du tunelen eraikuntzak eta 2027 urterako bukatzea aurreikusten dute. Elkarren ondoan joango diren bi tunel izango dira, norabide bakoitzean bat eta errail bikoitzarekin biak.

Errepidea naturgune gaintetik
Bestalde, Supersur eta AP-68a lotzeko, 4,2 kilometroko errepide bat egitea da asmoa, Bointxuko naturgune babestua gaintetik. 203 milioi euro bideratuko dituzte, eta 2023rako bukatu nahi dute.

Eragile ugari aurka
“Ampliación Supersur Ez!” plataforma aurkeztu zuten apirilean. Diote ez dagoela obrak justifikatzerik jendarte, ekonomia eta ingurugiro ikuspegitik. “Lurralde eta hirigintza planifikazioaren gestio arazo larria da dagoena”.

MEMORIA HISTORIKOA



ataritako ikur frankistak kenduko ditu Udalak Gasteizen, Memoria Historikoaren Planaren barruan.

149

lekutan daude izaera horretako xafiak. 62 etxebizitzatako jabeek oniritzia eman diote ikurrak kentzeari; beste batzuek oraindik ez dute erabakirik hartu edota beraien kabuz ekin diote horiek kentzeari.



BIZITZA DA HANDIENA

“Borroka sozialen astea” deitu dute Donostian, Turismoaren Munduko Goi Bileran hirian egin bitartean. Maiatzaren 19tik 26ra herritarrei kalera ateratzeko deia egin diete, “Bizitza Da Handiena” lelopean. Beste hainbat eragilek ere protestak iragarri dituzte.



MOZAL LEGEA

2017ko abenduaren 21ean, Donostiako Plaza Berrian Askekintzako 12 kide Ursula txerria sartu behar zuten kaiola blokatzen aritu ziren desobedientzia zibilez. Ekintza horregatik, 7.200 euroko isuna jarri die Donostiako Udaltzaingoak, Mozal Legea aplikatuz.



BERRIZ ERE PUBLIKO

Espainiako Poliziak 1978ko sanferminetan hil zuten German Rodríguez iruindarraren heriotza argitzeko informazioa publiko egiteari uko egin dio Espainiako Kongresuak, PP, PSOE eta Ciudadanosek kontrako botoa eman baitute.

Poliziaren gas potoak, jendeak sakabanatzeko arma kimiko hutsak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Gerrarako debekatuak baina bake garaiko protestetan huskeria bezala erabiliak, gas negar-eragileek irudikatzen dituzte estatuen bortxa modernoaren kontraesanak. 1920ko hamarkadatik herritarren mobilizazioak zapuzteko prestatuak, gason erabilera fite ugaritu da azken urteotan mundu osoan. Eragin dituzten heriotza, zauri eta kalteen ebaluaziorik ez da ezagutzen. Ordainetan, gero eta negozio handiagoa mugiarazten dute, batik bat krisi handian sartu ginenetik.

11.000 granada inguru jaurti dizkiete jendarmek Britainiako Notre-Dame-Des-Landesen ZAD famatua defenditzen zuten herritarrei, Bertrand Cavallier jeneralak prentsari aitortutako kopurua da. Aste pare batean 11.000 granada, horietatik 10.000 gas negar-eragilea hedatzen dutenak. *Su etena* heldu denean, ekintzaileek karkasa hutsak itzuli dizkiete agintariei Naoned-Nantesko prefekturaren atarian pila harri-garria osatuz.

Mundua etxeko pantailetatik ikusten duten herritarrei ke horiek hutsalak iruditu arren, arma kimiko arriskutsuak dira, Anna Feigenbaumek oroitarazi duenez *“Negar gasa: I. Mundu Gerrako gudu-zelaietatik gaurko kaleetara”* liburuan. Hasteko, kontatu digu zer nolako pozo kimikoak daramatzaten lurrunok.

Batzuek CS gasa daukate, kloroben-zilideno malonitrilo delakoa. CN deituek klororoazetofenona. CR tipokoek dibenzoxazepina. Badira OC motakoak ere, piper gasa daramatena, oleoresina capsicum. Feigenbaumek azpimarratzen duenez, gasok pentsatuta daude igurzten dituzten pertsonen eragiteko “tortura, adorea birrintzea eta kalte fisikoa eta psikologikoa”.

Gas negar-eragileak historian azaldu ziren 1914ko abuztuan, I. Mundu Gerran, tropa frantsesek alemanei jaurti zizkietenean bromuro metilbenzilo betetako granadak: negarra eragin, ikusmena lausotu eta itotzear jartzen ziren soldaduek, estutasun hartan ez

zeukaten lubakietatik irtetea beste biderik eta orduan frantsesek fusilen tiroz bezala artilleriaz garbitzen zituzten. Hilabete batzuk geroago 1915eko apirilean, Ypresen hartu zuten alemanek errebantxa, frantsesei kloro gasa jaurtiz. “Erasokortasunean irabazteko tresna ziren gasok. Askoz geroago, Vietnamgo gerran negar-eragileak modu beretsuan usatzen ikusi ditugu. Vietnamdarrei jaurtitzen zizkieten beren bunkerretatik irten arazteko, ondoren haien gainean beste gasak, bonbak edo tiroak jaurtitzeko. Erabilera militar-rrongatik daude gas negar-eragileak debekatuta gerretan”.

Baina kontraesanak zer diren, Arma Kimikoen 1993ko Itunak *lacrimo* hauek debekatzen dituen arren gerra garaian, matxinaden kontrolerako baimenduta daude. Grafikoki esateko, nazioarteko itunak urratuko lituzke militar batek publikoki erakutsiko balitu gas potook desfile batean; aldiz, edozein polizia demokratikok lasai ederrean eskuzko botiletatik igurzten ditu gasokin protestalariak, edo fusilez potoetan tirata.

1920 eta 1930eko hamarkadetan hasi ziren AEB eta Europako zenbait estatu gas negar eragileekin sakabanatzen jendeen bilkura eta manifestazioak. Britainia Handia hasiera batean uzkur omen zegoen munizio honekiko, bere herritarrek gogoan baitzeukaten Gerra Handian Europako zelaietan jasandako triskantza. Baina horiek ere laster ireki zioten atea ustezko aurrerapenari.



Inperioko bazter askotan matxinoak metodo berriekin hasi ziren aurre egiten kolonialistei. Indian Mahatma Gandhik ekin zionean *Satyagraha* deitu borroka ez bortitzari, jende baketsua tiroka hiltzeak itxura txarra ematen zien agintariei. Gero, Nigerian emakumeek hartu zuten protagonismo handia inperioren aurkako mugimenduetan. Londresko agintariak arma kimiko berri *ahulago* horiekin metropoliko herritarrei sinetsarazi zieten ondo enplegatuta gasak baliagarri izan zitezkeela *matxino basatiak* zibilizatuki menderatzeko.

Masak kontrolatzeko merke eta efikaza

Gaur gas negar-eragileak hain polemika gutxiarekin erabiltzea ere hein batean agintari britainiarrei zor zaie. Ipar Irlandako manifestariei hura jaurtitzea justifikatzeko sortu zuten Himsworth batzordeak egiaztat ezarri zuen gas hori –ez armen baina drogen atalean aztertuz– toxikotzat jotzeko gutxieneko maila bat. Toxikotasun mailaren azpitik gasa arriskutsua ez dela argudiatuz, jendearen begi, aho eta sudurrak haiekin igurztea onargarri bihurtu zen.

Kontua da geroztik ez Osasunerako Mundu Erakundeak eta ez beste inork ez duela egin arma hauen ondorioen azterketa globalik, dokumentazio lan handia egin duen Feigenbaumek dioenez. Txosten mediku zehatz asko bai aurkitu ditu, esaterako azken aldian Turkia, Venezuela, Britainia Handia edo AEBetako medikuen elkarteen plazaratutakoak. Baina maila



'Liberation' egunkariak apirilean zabalduko argazkian, ekintzaile bat Notre-Dame-Des-Landesen lurren pozoitsuz inguratuta, ZADa desegitera bidalitako polizia bota dizkieten gas negar-eragilezko potoak berriro haiei teniserako erraketa batekin jaurtitzeko ahaleginean. Gasaren kalteetatik babesteko aurpegian daraman maskarak oroitarazten ditu I. Mundu Gerrako lubakietan soldaduek zeramatzenekin, pozoia ere berdintsua izaki.

orokorragokorik ez. Feigenbaumek gasoi egozten dizkien arriskuak –malkoak, goragaleak, abortatzeak, itsutasuna, baita heriotza ere...– mundu osoan hain naro erabiltzen diren munizioekin nola gauzatzaren diren azalduko duen ez kopururik eta ez baloraziorik ez dago, soilik dakigu arma legalak direla, inolako kontrolik gabeak.

“Gas negar-eragileena itzalpeko merkatu bat da –dio ikerlariak– kontratuetako askok ez baitute gobernuen baimenik ere behar. Industriak zuzeneko harremanak ditu poliziaekin. Ez dago behaketarik Nazio Batuek indarra eta armak erabiltzeko ezarritako estandarraren jarraipen planetan; beraz, erabilera okerre jarraipenik ere ez. Gehiegizko erabileraren eta komertzioaren arteko loturarik ez da aztertzen”.

Gasa merke eta efikaza da kaleko gatazkak kontrolatzeko, batik bat at-

mosfera kontrolatzeko [policing the atmosphere] teknologia bakarretakoa delako. Kautxuzko pilotak eta ur kainoiak linealak dira, ez atmosferikoak, soilik harrapatzen dute eremu txiki batean kokatutako itua, pertsona. Alde horretatik, gasak diru gutxiagorekin askoz eremu zabalagoa kontrolatzen du.

Feigenbaumek dio gaur, batik bat 2008ko krisia lehertu zenetik, protestan datorren jendearen aldetik taktika ezberdinak ugaritu egin dira. Europar adibidetzat jartzen ditu Frantziako azken aldiko mobilizazioak, zeinetan bildu diren klase askotako gizarte mugimendua, sindikatuak eta beste, eta badirudi polizia ez zegoela horri aurre egiteko prestatua. Eta gainera irudiak daude. “Agintaria bazara, larriena da telebista ekipo asko daudela protestetan, irudi horiek hartu eta jendeen etxeeta-

raino iristen direnak, eta polizia nola edo hala irabazle atera nahi duela leletan jokatzen den komunikazio gudu horretan”. Notre-Dame-Des-Landesen ikusi denez, nor den nagusi garbi uzteko gasa aski ez denean polizia prest daude matxinoei erasotzeko gerrako zauriak eragiten dituzten bestelako granada gogorragoekin, ZADetik zabaldu diren argazki beldurgarrietan ikusi dugunez.

Segurtasun konpainiek hurbiletik jarraitzen dute munduko protesten bila-kaera. Esaterako, industrialek ba omen daukate *Tear Gas Watch* izeneko posta elektronikoko zerrenda bat, zeinetan bateko eta besteko aktibistek zabalduko informazioak fabrikatzaileek beren estrategiak fintzeko birziklatzen dituzten. Horra jendeak gaseztatzeko produktuen *Ikerketa+Garapena+Berrikuntza*. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Euskaldunaren aktibazioa lehentasuna da, inork ez dizkigu babak eltzetik aterako»

Patxi Baztarrika
Euskararen politikaz beti

Hamar urte zituen Rikardo Arregik bultzatutako kanpainaren oihartzuna paparrera heldu zitzaionean: "Euskaldunok euskaraz" intsignia. 50 urte geroago, euskaldunok euskaraz egin dezagun deika ari da Patxi Baztarrika, hizkuntza politikaren ur hotzean erre.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Dani Blanco

Hizkuntza politikarako ardura utzi zenue-larik 2016an, ez zenuen elkarrizketarik nahi izan. Zergatik?

Ez zen garaia, ez zen nire momentua. Halaxe erabaki nuen. Elkarrizketa eskeak estimatu nituen, baina etorri berrien garaia zen, interesgarriagoa zen haiek zer zioten jakitea, nik esan neza-keena baino. Horixe eutsi nion. Orain iritzi pertsonala ematen dut, beste inor konprometitu gabe.

Hizkuntza Politikarako sailburuorde izan zinen bi legegintzalditan. Lankidetzaren eta adostasunaren hizkuntza politikak izanagatik ere, kritikak jaso zenituzten.

Jardun publikoan behar-beharrezkoak dira kritikak, eta onartu egin behar dira. Nik, esaterako, asko ikasi dut kritiketa-tik. Euskarak beharrezko ditu ekimen

soziala, ekimen pribatua, eta herri era-kundeen ekimen publikoa. Hirurak. Euskararen munduetan, berriz, 40 urte honetako talka politikoak bere eragina izan du. Sektore jakin batek instituzio-nalizazioa ukatuz definitu du bere es-trategia politikoak, instituzionalizazioari legitimitatea ukatu dio, eta talka politiko horrek isla izan du euskararen arloan; oso modu berezian, euskararen arloan. Azkeneko urteetan onbidean da egoe-ra, eta onbideratuago izango da dato-zen urteetan. Hori mesedegarri izango du euskarak. Hala ere, bestelako kriti-kak ere gogoan ditut. Adibidez, euskal gobernuak Euskararen Agenda Estra-tegikoa egitea dirua alferrik botatzea zela ere entzun genuen, edo *Aldatu txipa* kanpaina abiarazi genuenean –euskaraz dakitenen aktibaziorako hartaz ari naiz,

Patxi Baztarrika Galparsoro
Ataun, 1958

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, itzultzaile hasi zen Andoaingo Udalean 1981ean eta Euskara Zerbitzuaren teknikari arduraduna da egun. Tartean, Gipuzkoako Foru Aldundian jardun zuen eta Donostiako Udaleko zinegotzi ere izan zen. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde izan zen 2005-2009 eta 2012-2016 legealdietan. NPLD Europako Hizkuntza Sarearen presidente izan zen 2015-2017 artean. *Babeli gorazarre* (Alberdania, 2010) du argitaratua.



lehen hitza euskaraz egitea sustatzea helburu zuenaz-, berealdikoak entzun behar izan genituen, euskara inposatzen ari ginela eta hau eta hura. Horiek ere, bistan da, talka politikoa zuten jatorria.

Nola ikusten duzu euskararen egoera gaur egun? Berdin ikusten da Eusko Jaur-laritzaren Hizkuntza Politikarako Sailbu-urordetzaren talaiatik nahiz Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzutik?

Paisaia bera ez da berdin ikusten lehen solairutik edo hamahirugarrenetik. Ezaugarriak eta ñabardurak hainbat izan ohi dira. Batetik nahiz bestetik, nik euskara hazten ari dela ikusten dut, dela etxeko transmisioan –eta ez da askotan aipatzen–, ezagutzan –hauexa aipatzen da beti–, eta erabileran. Hazten ari den hizkuntza da euskara. Joan den 30 urte honetan hazkunde jarraitua izan du euskarak, eta kasu honetan, adjektiboak garrantzi handia du: jarraitua. Ez du parekorik munduan, Miquel Gros i Lladósek esan zuenez. Erabilera ere hazten ari da, gazteen artean batez ere, gehiago eremu publiko formalean etxeko giroan baino. Horrek, jakina denez, faktore askorekin du lotura, eta besteak beste, hizkuntzaren gaitasun erlatiboarekin. Euskaldunok, zorionez, ez gara elebakarrak, eta horregatik ari gara gaitasun erlatiboaz hizketan, beste hizkuntza batekiko gaitasunaz ari garelako. Euskarari dagokionez, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara ez baina gaztelania dutenak. Normala da euskara gehiago erabiltzea eremu publikoan etxean baino. Euskarak etapa asko irabazi ditu, etapak irabazten ari da, eta irabazten jarraitu beharko du, guztiz irabaztera iristeko.

Noizko “guztiz irabazi”?

Bi-hiru belaunaldi berrira, euskarak ziurtatua luke biziraupena. Aldiz, ezin esan bizi-indarra ziurtatua duela. Bizi-indarra dago jokoan, hizkuntza bizi izatea, ez dadin euskara txokoko epeltasun goxoa zokoratuta dagoen hizkuntza izan. Herritarren esku dago euskara, eta horrek motibazioari eragitea eskatzen du. Lehenetsi beharreko puntua da motibazioa, pluralean esanda, erdigunean ez baitago hizkuntza, hiztuna baino, eta horrek berealdiko konplexutasuna dakar, emozioak, sentipenak, pozak eta haserreak jokoan direla esan nahi baitu. Euskarak hazkunde jarraituaren

Sozialisten hizkuntza

“Beste hizkuntza politika bat gauzatu zuten, aurrekoarekin eten gabe ere, nahiz eta errotiko aldaketak iragarri hasi ziren. Geldotze bat gertatu zen hizkuntza politikan, bereziki nabarmena Osakidetzan edo kontsumo arloan, baita helduen euskalduntzean ere. Baina ez zen 360 graduko aldaketarik izan, gure gizartean, askori esker, baita sozialistei esker ere, adostasun maila handia lortu baitugu hizkuntza politikari dagokionean”.

Balorazioa

“2016an, herritarren %62k egokitzen jo zuten Jaur-laritzaren hizkuntza politika, desegokitzen %19k. Bost urte lehenago baino 13 puntu gorago baloratu zuten gure talde lana. Zifrak ez ziren ohikoak kolore jakin bateko gobernuaren lana baloratzen baitzuten. Hamabost urtean egindako neurketa guztietako zifrarik altuenak ziren, lurraldez lurralde orekatuak, erdaldunen eta euskaldunen artean ere orekatuak. Gizartearen ia bi herenek zer motatako hizkuntza politika egin behar den seinatu zuten. Aprobetxatu behar diren erreferentziak eman zituzten, kontsentsu politiko eta soziala hain beharrezko den arloan”.

bidea hartua du, eta orain, hazkunde jarraitu horri iraunkortasuna eman behar diogu. Hurrengo belaunaldien lana izango da hori, subordinazioari alto ematea.

Euskararen erabilera helburu, txitean-pitean erabili izan zenituen “elebitasun pasiboa”, “euskara hiztunen aktibazioa”, “erakargarritasuna”, “atxikimendua”... Kritika iturri horiek ere.

Hitz gakoak dira, horratik! Elebitasun pasiboa dela-eta, adibidez, 2005eko legealdian bertan zabaldu genuen kontzeptua. Beste zenbaiten artean, Moreno Cabrerak landutakoa da. Hark seskilinguismoa esaten zion. Euskara gaitasun erabatekoa ez duten hiztunak elebakarren zakuan sartzea berealdiko errore estrategikoa da. Orain “belarriprestak” aktibatu nahi ditugu, baina kritikak izan zituen, euskaldun osoaren helburuari bizkar ematea zela ere esan zuten, ikuspegi ezberdinak plazaratu ziren, eta zinez, legitimoak dira kritikak eta ikuspegi guztiak. Besteak beste, kritikek aberastu eta argitu egiten dituzte kontzeptuak, eboluzionatzen laguntzen digute. Aktibazioari dagokionez, kritikak jaso zituen beste kontzeptu bat duzu. Esan behar dut euskaldunaren aktibazioa lehentasuna izan dela nire iritzian, horretan jarri behar dugula fokoa, inork ez dizkigulako babak eltzetik aterako. Horixe da errealitatea. Euskalduna errudun egiten genuela ere esan zuten kritikek, erruduntasun filosofiarik gabe errealitatea ulertzeko zailtasunak baititu askok, eta kontu honetan sekularizazio handixeagoak ez liguken kalterik egingo. Ez gabilta errudun bila, hiztun bila baizik: euskaraz hitz egiteko kondizioak betetzen dituen euskaldun bila. Ze ondo “ahobiziaz” mugiaraztea.

Erakargarritasuna, atxikimendua...

Euskarak irabazten jarraituko badu, hizkuntza politika aurreratua eta aktiboa behar da, lege-babesa, herri erakundeen konpromisoa eta jardun jarraitua. Hala ere, erakargarritasunik gabe, herritarren atxikimendurik gabe, jai du euskarak. Aspaldi irakurri nion Txepetxi bere buruari galdetzen ziola: “Euskarak aurrera egingo badu, zer da beharrezkoa? Euskara eginbeharra izatea, ala plazera?”. Haren erantzuna, “plazera”, “eginbeharra” gutxietsi gabe. Askok egin du gogoeta bera, nahiz eta beste modu batera. Akordatzeko naiz Kirmen Uribe-



ren *Mussche* nobela ederrean, Robertek galdera egiten duela: “Zerk mugitzen du mundua? Ekonomiak, botereak ala maitasunak?”. Eta erantzuna: “Maitasunak”. Euskararen jardunak erakargarri izan behar du, obligaziozkoa ez denean ere erabilia izango bada.

Zertan da, euskarari dagokionean, oro har, agintarien aitzindaritzaz?

Joan diren hiru hamarraldietan euskarak ibilbide ikaragarria egin du, eta hori ez zatekeen posible hizkuntza politika aurreratua gabe. Ikusi nahi ez duena, itsu da. EAEn hizkuntza biziberritze-ko egin den bidea ikaragarria da. Ikusi besterik ez dago zer gertatu den Nafarroan eta Iparraldean, urte askoan oso bestelako hizkuntza politikak izan diren horietan. Nire ustez klabea da agintarien lidergoa ahalik eta transbertsalena izatea, hau da, lidergo horretan herri

erakundeetako hainbat arlotako ardura-dunak ahalik eta gehien inplikaturik egotea. Jon Darpón Osasun sailburua dut adibide. Niri pozgarri zait Osasun sailburuari esaten entzutea euskarak pisu handiagoa izan behar duela osasun zerbitzuetan, hain zuzen ere, sendagilearen eta gaixoaren arteko enpatia areagotzeko baliagarria delako euskara, zerbitzuaren kalitatea hobetzen duelako. Oso argumentu inportantea iruditzen zait, eta transbertsalitatearen adibide ezin hobea. Hala ere, agintarien aitzindaritzaz gauzatzeko modurik onena litzateke beraien ere, beren eguneroko jardunean, euskarari komunikazio hizkuntza izateko atea irekitzea. Horixe litzateke lidergorik indartsuena.

Zein ditugu euskararen oraingoak eta etorkizunera begirako erronkak?

Ez noakizu *Eta hemendik aurrera, zer?*

dokumentuak jasotzen duen guztia esatera, Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartu zuena, eta diputazioek eta orduko Jaularitzak eta euskararen eragile sozial askok, eta pisu handikoek, onartua. Hantxe ageri dira erronkak. Lankidetzaz eta adostasunaz hainbeste hitz egiten denean, komeni da dokumentu hartaz baliatzea. Erronkarik nagusiena aipatzearen, hala ere, euskararen auzia agenda sozialaren erdigunean kokatzea, efektiboki, ez sinbolikoki, da inportanteena. Agenda soziala aipatu dut, ez agenda politikoa, oso emanak baikara horretara mugatzera. Indar handiagoz agertu beharko luke euskarak agenda sozialean, presentzia ahula baitu, gaur-gaurkoz, gure agenda sozialean. Askotariko eragile sozial, sindikatu, enpresa, elkarte... asko eta asko konbentziturik daude euskararen auzia ez dagokiela.

Erronka nagusia agenda sozialaren erdigunean kokatzea, ez erronka bakarra, bistan denez.

Hemendik hamarraldi batzuetara gutxiengo izango dira erdaldun peto-petoak, baina, hala ere, gehiengo izango dira gaztelania lehen hizkuntza izango dutenak. Ausardia behar dugu errealtate hori –ezagutu ondoren– onartzeko, bestela ez baitugu hizkuntza aurrerabidean jarriko. Erronka transbertsalean, motibazioa aipatu behar. Hitzunak hautua egin beharko duenez, hizkuntza gutxituen kasuan nahitaezko da hizkuntza kontzientzia izatea. Ez, inondik ere, ideologia politiko jakin bati lotutakoa, gizarte proiektu bati lotutakoa baizik: etxean jasotako hizkuntzari eusteko erantzukizuna, gizarte pluralaren singularitasunari eusteko nahia, identitatea, pragmatikotasuna... Lotu dezagun hizkuntza kontzientzia era horretako elementuekin. Nik ez dut beste biderik ikusten euskara gure hizkuntza nazional bihur dadin. Bestela bada, euskara, onenean, tribu bateko hizkuntza izango da, hizkuntza subordinatua, ez hizkuntza nazionala. Gizarte euskararekiko “Bai, baina” jarrera duen jendez beterik dago, eta horiek euskararen aldera ekarri behar dira. Hori da nire iritzia.

Etxepareren lehen liburutik hona gabil-tza euskararekin atzera eta aurrera. Beti euskararekin jirabuel-taka bizitzea ote dagokigu?

Chomskyk esan zuen: “Hizkuntza txiki-en etorkizuna ezin da aurreikusi, herritarren esku dago”. Horregatik dagokigu jira eta buelta ibiltzea. Edo Fishmanek esan zuena: “Geu gara gure hizkuntzaren berme bakarra”. Jirabuel-taka ibili behar! Hautua egin behar! Euskal-



Azken hitza: Agur

“Kargua utzi eta ondoko egunetan dozenaka idatzi jaso nituen, esker onekoak. Haietako asko, gehienak, euskalgintza sozialeko eragileek idatziak ziren. Idatzietan, oroz gain, elkarlanerako zubiak eraiki izana, eta lankidetzeta eta adostasuna landu izana azpimarratzen zen”.

dunen aktibazioak, mintza-jardunak, eutsi dio bizirik euskarari. Nola, bestela. Bere sinpletasunean hain klabea den

kontzeptua, ez da gaurkoa. Beti behar-ko dira sustapen politikak, agintarien konpromisoa, agenda soziala... baina eskatuko du aukera horiek baliatzea, eta aukera horiek baliatzeko, hautua egin beharko da. Eta hori lotuta dago motibazioekin, hizkuntza kontzientzia-rekin... eta hori oso gauza korapilotsua da. Erabilera prestigiatzen ikasi behar-ko dugu, ez bakarrik ezagutza, komu-nikazio tresna izan dadin etorkizunean, nahiz eta beti egongo den kontzientziari lotua eta, horregatik hain zuzen, korapi-lotsua izango den. Gogoan dut Bernar-do Atxagak, Euskaltzaindiara sartzean egin zuen hitzaldian esan zuena: “Ez zait inporta krisian dagoen hizkuntza bat izatea, baldin eta krisi horrek bost mila urte irauten badu”. Horixe. ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
*Zure momentu
zailetarako*

Tel.: 943783447 · 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 · Oñati

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Iraultza

Poztu ninduen Madrilen Nikaraguarrekiko elkartasun ekitaldi bat antolatu zutela jakiteak. Bilbon egindako lehenengo elkarretaratzean, nire neskalaguna eta biok izan ezik, Moyua plazara hurbildutako guztiak Nikaraguako etorkinak ziren. Ekitaldi horretan abestu behar zuen musikari ezkertiar baten sare sozialen bidez jakin nuen. Pozaren ondoren jarraian amorrua sentitu nuen, musikari honen lagun batek utzitako iruzkina irakurritak: “Indarkeria bakarra inperialismoak finantzatzeko duena da. Nikaraguaren kontra doaz, Venezuelaren kontra doazen bezala”.

Baina zer ari da gertatzen Nikaraguan? Agian ez duzue gauza askorik entzun. Jakin badakigu Erdialdeko Amerikak interes mediatiko eskasa jasotzen duela. Agian, albiste labur bateren bat entzun duzue: gizarte segurantzaren erreforma baten kontrako manifestazioetan hildakoak egon direla. Agian, protesten atzean Ameriketako Estatu Batuen esku-hartze plana dagoenaren teoria entzun duzue, ARGIA bertan. Argia.eus-en apirilaren 25ean argitaratutako albistean, giza eskubideen defentsan lan egiten duten nazioarteko erakundeengana jo ordez (esaterako, IM-Defensoras Erdialdeko Amerikako emakume giza eskubide defendatzaileen sarea), Nikaraguako herri mugimenduetara jo ordez, Telesur hedabidea izan da bere iturri bakarra. “Trumpen gobernuak, iraganean Obamaren lan taldeak Venezuelan egin bezala, ‘kolpe biguna’ eman du Nikaraguan, iraultza sandinista gelditu eta herrialdean zuen kontrola berreskuratzeke. (...) Manifestazio baketsutan eskuineko alderdietako kideak indarke-riaz sartu dira, kaosa sortu eta gobernuaren dimisioa behartzeko”.

Amorrua. Amorrua. Amorrua!
Ez ezazue sinetsi!



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Mugimendu feminista izan da Daniel Ortegararen gobernuko botere metaketa eta ustelkeria salatu duen sektore nagusienetariko bat. Matxista-leninistek gustoko dute feministok CIAREN txotxongiloak garela esatea, klase borrokaren etsaiak garela. Ez sinetsi

Polizia eta gazte sandinista armatuak izan dira 46 mutil gazte hil dituztenak eta denden arpilatzeen bidez protestak kriminalizatzen saiatu direnak. Uni-

bertsitateetan itxialdien kontra suzko armekin egin dute; sare sozialetan #SOSNikaragua traolaren bidez bideo mordoa topatuko duzue. Nire lagunak han zeuden. 46 hildako horien artean, kazetari bat. Buruan tiro bat jaso zuen Facebooken bidez protesten berri ematen ari zela. 46 hildakoen artean, Nolan nire lagun maitearen lehengusua.

Francisca Ramírez lider indigenak labankada jaso zuen Managuara protestekin bat egitera bidaiatzen zihoala. Bera ere Donald Trumpen konplizea al da? Eskuinekoak al dira Ozeanoarteko Kanal bat eraikitzeke asmo iruzurtia medio, lurren desjabetzea eta protesten errepresioa pairatu dituzten milaka nekazariak? Hori ez du Telesurrek kontatu. Ezta Daniel Ortega 2007an boterera itzuli zela eskumako alderdi batekin, Eliza Katolikoarekin eta enpresa oligarkiarekin negoziatu zuelako. Fabore hori itzultzeke lehen neurria: abortua legez kanpo uztea.

Mugimendu feminista izan da Daniel Ortegararen gobernuko botere metaketa eta ustelkeria salatu duen sektore nagusienetariko bat. Matxista-leninistek gustoko dute feministok CIAREN txotxongiloak garela esatea, klase borrokaren etsaiak garela. Ez sinetsi.

2012 urtetik daramat Nikaraguari, bere herri mugimenduei, lotuta. Managuan urtebetez bizi nintzen. Gizarte ekintzaileak dira nire lagun “nika” guztiak. Nazioarteko hedabide eta alderdi politikoen babes falta (Telesurren kasuan agerizko manipulazioa) mingarria da eurentzat. “Trump, bitch. Sit down. You got not vela en este entierro”, txioa partekatzen dute eta “Aberri librea ala hil” oihukatzen dute. Iraultza sandinista lagundu zenuten euskaldunok garbi izan beharko zenukete Ortega Sandinoren traidorea dela. Kaleetan eta unibertsitateetan piztu dena da egun lagundu behar dugun iraultza. ■

Urratsek egiten gaituzte

Manifestazio guziek ez dute zapo-
re berdina. Maiatzaren 4an ikas-
tolen kexua ozen adierazteko
antolatutakoak sentsazio goxo batekin
utzi gaitu. 7.000 haur, guraso, irakasle,
langile eta euskaltzale bildu ginen, dan-
borrada alai eta koloretsu baten bidez,
Paristik datorren jazarpenari erantzut-
eko. Lapurdi, Baxenabarre eta Zubero-
ko 36 ikastolak alerta gorrian dira. Aldi
honetan irakasle postuak dira jokoan.
230 ikasle gehiago izanen dira ikasto-
letan datorren ikasturtean. 25 irakasle
postu berri beharrezkoak dira baina
Akademia ikuskariak Seaskari jakinara-
zi dio posturik ez zuela sortuko.

Irakasle postu eskasak hezkuntza-
ren kalitatean izanen du eragin zuzena
eta ikastolen 2/3a hunkitua izango
da. Konkreteki, irakasle gutxiagorekin
ikasle gehiago metatuko dira ikasgela-
ka. 45 ikasleko gelek, arreta gehien
behar dutenak izango dira lehen kalte-
tuak: ahalmen urriko haurrak hasteko,
ikastolatik kanpo euskararik entzuten
ez duten ikasleak ondotik, eskola-zail-
tasunetan direnak bukatzeko.

Funtsean, Estatuaren piko hori ira-
ganeko serie luze baten segida besterik
ez da. Atzo, Falloux legearen mamua
astinduz, ikastolak baliabide publikoe-
kin laguntzea oztopatzen zuten. Gaur



Eneko Gorri

EUSKARA TEKNIKARIA

Gure hizkuntzak
jomugan dira Pariseko
goi-funtzionario eta
erabakitzailentzat. Eta
euskarak duen transmisio
kanalik eraginkorrena, gaur
egun Ipar Euskal Herrian
ikastolak dira

azterketak euskaraz aurkeztea debeka-
tzen dute. Bihar, irakasle postuak izoztu
nahi dituzte. Gure hizkuntzak jomu-
gan dira Parisko goi-funtzionario eta
erabakitzailentzat. Eta euskarak duen
transmisio kanalik eraginkorrena, gaur
egun Ipar Euskal Herrian ikastolak dira.

13.500 ikasle ikasten dute euska-
ra(z) eskoletan Ipar Euskal Herrian.
%25 ikastoletan eskolatuak dira, eta
%75 ikastetxe publiko edo giristinoe-
tan ordu parekotasunean edo 3-6 urte
artean irakaskuntza denbora osoa
euskaraz segituz. Azken hogeit urteetan,
euskararen familia transmisioa ha-
mar puntuz apaldu dela jakinik, eredu
guziak (ikastola, publikoa, giristinoa)
dira beharrezkoak... baina hizkuntzaren
transmititzeko bakarra da eraginkorra.
Haurrak erabat euskalduntzen dituen
eredu bakarra ikastola da. Egiazko
murgiltzea proposatzen duen eredu
bakarra ikastola da. Eta azken hamairu
urteetan %80ko hazkundea izan duen
eredu bakarra ikastola da. Hori guzia
Parisen badakite eta progresio hori oz-
topatu nahi dute.

Gurean ere, ikastolako gurasoen
perfila asko aldatu da azken urteetan.
Nostalgia pittin batekin, sekulan existitu
ez den ikastola bat idealizatzeak tenta-
zioa azkarra da. Baina agerikoa da herri
honek ikastolekiko duen atxikimendua
eta Seaskaren mobilizazio gaitasuna
oraindik azkarrak direla. Bataila hori ez
da lehena eta hau ere irabazi beharko
dugu. Berreskuratze bidean, euskarak
baitezpadako bidelagun dituelako ikasto-
la humano, herritar eta eraldatzaileak. ■

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Petronor noiz arte?



Iñaki Barcena
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Petrohorror ezizena jarri zioten Athleticeen kamisetan publizitatea egiten hasi zirenean 2008. urtean. Urtero bi milioi euro sartzen zituzten zurigorrien aurrekontuan, sei urte jarraian eta denak pozik, antza, ekologistak salbu. Baina urte oparoak bukatu ziren 2013an koke planta martxan jartzearekin batera, petrolio birfindegira zorrak etorri baitziren bi urtez jarraian. Batzuen ustez, 750 milioi euroko inbertsioaren ordaina zen. Beste batzuen ustez aldiz, gaurko sistema ekonomikoan birfindegi bat petrolio putzuen 6.000 kilometrotara egoteak ez du etorkizunik eta horren frogarik gordinena, 29 birfindegi itxi dutela Europar 2008tik hona (*Deia*, 2017ko uztailaren 9a).

Muskizko birfindegiak azken hiru urtetan mozkin apalak eduki ditu, baina presidente berriari, Emiliano Lopez Atxurra zumaiaerrari, galdetu diotenean petrolioaren merkatuaren eboluzioaz edo prezioei buruz erantzuna grafikoa izan da oso: "Nik ez dut kristalezko bolarik".

Komunikabide ekonomiko eta ofizialistek urtero errepikatzen digute lelo bera: "Diru gehien sartzen duena kutxa publikoan Euskal Herrian", eta ez digute esaten gehien kutsatzen duena ere badela. (2,3 milioi tona CO₂), EAEko %35a). Duela gutxi Bilbon, topaketa ekosozialista batean Petronorreko langile batek haserreturik zioen: "Or-

daintzen dute legeak agintzen duena. Ez gehiago". Eta duela 50 urtetik Muskiz eta inguruko herriak ari dira pozoitzen egunero diru horren truke. Noiz arte?

Petronorren geroa, bi faktore global eta orokorrekin markatuta dago, ezinbestean. Alde batetik *petrolioren gailurra*, hots, hemendik aurrera petrolio gutxiago, garestiagoa eta txarragoa izango dugu. Eta bestetik aldaketa klimatikoak seinaltatzen duen urgentzia eta negutegi efektua eragiten duten gas isurketen gutxitu beharra. Bi faktore horien aurrean bi bide desberdin ditu enpresak: bata, orain arte bezala segi, *business as usual*, egoera ekonomiko kritiko bat ezagutu arte, itxiera traumatiko batean murgildurik bukatuz. Siderurgian eta itsas ontziolatan adibide freskoak ditugu oraindik. Bigarrena, trantsizio energetikoaren eta birmoldaketa industrialaren bidea hartu, irizpide ekologiko jasangarriak, justizia soziala eta bide politiko demokratikoak praktikan jarritz. Bigarreneko bide hau, ez dugu uste Repsol (%86) eta Kutxabank (%14), hots, enpresaren jabeen gustukoa denik, euren helburu bakarria dirua irabaztea dutelako. Baina instituzio politikoek? Eta alderdi politiko eta sindikatuak? Ikusle moduan itxaron-go dute birfindegiaren gainbehera? Egun hori heltzen denean Josu Jon Imaz eta Emiliano Lopez Atxurrari kristalezko bola bat oparituko diegu? ■

1.200 karaktere



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA

Mila berrehun karakteretan ezin da hamargarauza pulamentuz esan. Erabaki beharra daukazu esan nahi duzun hori, eta kondentsatu. Orduan, *aldarte nekatuen eta gogo nahasiaren garaiotan* zerbait handia esan nahi eta, sinekdoketxo homeopatikoak sortzen saiatzen zara etengabe.

Aipatzen duzu Seaskaren auzia eta nola eskola bidezko hizkuntza ezagutza duina bermatzen duen eskola eredu bakarra ito nahi duen Frantziak. Edo nola *Berdintasunezko etorkizun baten alde* manifestazioa egingo den laster Iruñean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika diskriminatzaileen aurka. Nola Gorka Urbizuk ez dauzkan hamar mila euro aurreztuta bankuan

edo nola orain Donostiako Zinemaldiaren *nortasun grafiko berria* SSIFF den. Edo aipatzen duzu nola azken 1.200 karaktereak idatzi zenituenetik gizon batek bere bikotekide ohia autoarekin harrapatuta hil duen Donibane Garazin, bigarren batek bikotekidea eskopetaz bota duen Bidarten, eta hirugarrenak lepoa moztu zion bikotekide ohiari Gasteizen, haren ama ere hilaz, bide batez.

Eta saiatzen zara esan nahi duzun hori esateko *modua* aurkitzen, hori gabe ez baitute zentzurik testuek –ez laburrek eta ez luzeek–. Eta batzuetan iruditzen zaizu asmatu egin duzula eta gehienetan ez. Eta hitz egingo nizueke gehiago honetaz, baina, gehiegi luzatu naiz dagoeneko eta karaktereak falta zaizkit. ■

Orain eta hemen 1968-2018

Egun hauetan, alde guzietatik ateratzen ari dira 1968ko maiatzari buruzko filmak, erreportajeak, garaiko kanten bildumak, “izan balitz eta egin bagenu” moduko mahai inguru surrealistikak. Eta saltsa bera zerbitzatuko digute hilabete bukaera arte. Gero kito.

Tarteka iraganaren melankolia nagusitzen da, lortu ez zen iraultza-ren ametsa, esperantza ondar batzuk han-hemenka, hain urruna eta ezina den zerbaiten gisan. Beste batzuetan, sentimentalismoa baino, ezkerari eta belaunaldi bati kritika luzatzen zaio, arbuiazen da ordenaren aldaketa gogo oro. Eta zenbaitetan, bai, desira indartsu sekretua sentitzen da berriz gerta dadin.


68ko maiatza, etxean, gutxi aipatu zen, egia, eta maiz aski ohar ezkorrekin aitor dezagun, kanalizatuak izan ez ziren oldarren zapartatzeari konparatua, nahasmenduari. Zoritxarrez, belaunaldi hark gogotik hartu bazituen ideia ezkertiarak, aldaketa iraultzailearen beldurrak kateatu zituen. Nahiz batzuek besterik adierazi gaur, ororen buru, dena borborka zen momentu horiei zor diegu hainbat aitzinamendu: Grenelleko lorpenak langileentzat, sindikalismoaren zabaltzea, hezkuntza-ren erreforma, Larzac-eko laborarien proiektua eta laborantzaren ildoen berrikuspena, kontrazepzioa, feminismoaren emergentzia, norbanakoaren eta kreatibitatearen balorazioa, enpresa autokudeatuak, ekologia. Euskal Herri-ra begiratuko bagenu, hemen berean utzi zizkigun Pitrau sindikalista eta bere kemena, Enbata, euskara batua-ren lehen printzak Baionan, ikastolak, Iparretarrak (IK), *Maiatz* aldizkaria berantago. Berritasun guzti horien hari gorria, partekatzea zen, aldarrikapenak partekatzea baita lorpenak ere. Brutala, beharrezkoa baina.



Bea Salaberri

IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

Gero, ondoko bi hamarkadatan kargudunak ahaleginduko ziren dena lurperatzen, batez ere libertate desira. Berrogeita hamar urte iragan dira eta erran dezakegu 2018an klima berdintsuan garela berriz, gure xokotan eta harago ere. Izan ere zer dakar aurtengo maiatzak? Berri-faltsuen eta afera-sekretuen legeak, unibertsitateen Vidal erreforma, garraioetako langileen grebak, osasun arlokoak, etorkinen aldeko mobilizazioak, elkartasun delituaren asmakizun negargarria, ZADaren hustea, erretretadunen kexak, bat egiteko gai ez diren sindikatuak eta goiko esferetan betiko manager irribarretsuak. Gaur ere bagenituzke arrazoi anitz grebari gorazarre egiteko, kulturalki, sozialki eta politikoki oldartzeko, egoismoaren, zapalkuntza-ren eta botere itogarriaren kontra altxatzeko eta manager handien bandoari inarrosaldi on bat emateko. Izan ere, galdera batzuen entzunarazteko eta erantzunak ekartzeko parada litzateke. Baditugu mila motibo altxatzeko, kolektiboki ekiteko, sumindu esnatzeko eta karrikara jausteko, bizi labur baina indartsuaren bizitza irabaztera joateko, ametsetan galtzeko, batez ere atzera botatzeko gustatzen ez zaiguna eta ukazioaren alde subertsiboaz zer bait hobea lortzera arriskatzeko.

Bost hamarkadetako distantzian, hain urrun eta hain hurbil daude egoerak, mundu osoan. Nahi, frankok dugu nahi Notre Dame des Landesko jendeak aitzina egitea Millau-n bezala, adinekoak hilabete bukaerara heltzea, CIMADE ez auzipetua izatea elkartasun delituagatik, bizkitartean, deus, makinak aitzina segitzen du, gu ez baikara “deus”, alferrak eta zinikoak baizik: bost hamarkadatan zehar kapitalismoa jarri da, ontsa jarri, deusek ez dezan haren martxa traba. ■




**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa





IRUÑEKO ALDE ZAHARRA

TURISMO MASIBOAREN ATZAPARRETATIK IHESI

Nor ez da turista gure Mendebaldeko gizartean? Gutxi batzuk. Nork ez ditu bisitatu nahi urruneko edo gertuko lekuak? Gutxik. Gero eta gehiago mugitzen gara, horra turismo masiboaren oinarria. Baina jakitun gara eta gero eta kontzientzia handiagoa dago turismo molde honen arazoaz. Iruñeko kasua aztertuko dugu hemen, arazoa larritzen ari da Alde Zaharrean eta bizilagunek eskatzen dute auzoa ostatu turistikoentzako eremu saturatua izendatzea.

**Xabier Letona**

@xletona

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hamarkadatan herrialdetako harribitxi izatetik, gero era eraso handiagoren jomuga bilakatu dira hainbat herri, hiri edota natur gune. Kazetari hau iazko Aste Santuan Veneziako San Marco plazara sartu zenean, haren edertasuna dastatu aurretik bertako bizilagunetz errukitu zen, ez baita makala egunero masifikazio horren epizentroan bizitzea. “Bizilagunak? –erantzun dizu lagunak ikusitakoa kontatu diozunean– hor ez dago bizilagunik, etxe guztiak turistentzat dira”.

Munduan zehar gero eta hedatuago den fenomeno da turismo masiboa eta dardara ematen du Iruñeko Gazteluko Plazak berdin buka dezakeela irudikatze hutsak. Hiri Buruzagi zaharra ere bai? Bada bai, badira zantzuak Iruñean ere zabaltzen ari den fenomeno dela turismo masiboarena, batez ere Alde Zaharrean pilatzen ari diren datuengatik. Bereziki Estafeta, San Nikolas eta Mercaderes kaleak dira arrisku handiena bizi dutenak.

Egia edo esajerazioa? Nondik ikusten den, beti bezala. Iruñeko Alde Zaharrean alokairuan bizitzeko etxe bila ari den gazte edo etorkinarentzat Pernandoren egia; eta bere pisuari etekina atera nahi dion herritar edo turismo munduko en-

presariarentzat, hazkundera eta garapena oztopatu nahi duten “betiko horien” marmarrak. Azken finean, etxebizitza turistikoaren elkarrekin dioten gisan, haiek hainbatetan galbidean diren espazioak biziberritzera datoz, besteak beste.

Datu oso kezagarriak

Bartzelona, Venezia, Palma, Ibiza, Berlin, Donostia... horiek bai, baina Iruñea? Gaiaz ezezagutza handia dago oraindik herritarren artean eta, beraz, ezagutza gutxi=azkura gutxi ekuazioa da indarrean. Datuak, ordea, zorrotzak dira eta hoska datoz. Iruñeko Udalak 2017an etxebizitza eta ostatu turistikoari buruzko ikerketa egin zuen Meridiano Zero aholkularitzaren eskutik. Urte berean, eta hau ere Udalak aginduta, *Efecto Airbnb Iruñea* ikerketa egin zuen Monterak 34 enpresak. 2017an Nafarroako Gobernuak ere egin zituen bere ikerketak. Datuak pilatzen ari dira, beraz, eta batzuk oso kezagarriak dira, ez Iruñea osoarentzat, baina bai Alde Zaharrentzat. Hemen batzuk.

Bat, Donostian urtean 1.200.000 pertsonak pasatzen badute gaua turista gisa bertako etxebizitza edo ostatu guneetan, Iruñean kopuru hori erdia da, 600.000 pertsona. Bi, lo egiteko plaza horietatik guztietatik %42 Iruñeko Alde Zaharrean da, %15 Zabalgunean eta beste %43 gainerako auzoen artean banatzen da. Hiru, Alde Zaharrean 1.000 biztanleko 165,6 plaza turistiko daude eta bigarren auzoa Ermitagaña-Mendebalde da, 1.000 blko/90,8 plazarekin; Txantrean, adibidez, 1.000 blko/6,9 plaza daude eta Donibanen 1.000 blko/0,6 plaza. Jakina, konparatzen badugu Bartzelonako Auzo Gotikoarekin gutxi da, han 1.000 blko/530 plaza turistiko daude. Baina Bartzelona turismo masibo eta kaltegarriaren paradigmatikoa da munduan. Iritsi behar ez den eredia.

Diruz ahulenak badoaz auzotik

Datu oso kezagarriak dira baina ez Iruñerako, batez ere Alde Zaharrerako, lehendik ere esparru zigortua, hiri handietako beste zentro historiko asko bezala, gero eta gehiago ostalaritza eta turismoaren parke tematiko bihurtzeko arriskuan. Alde Zaharrean plaza turistiko bat dago 5,4 biztanleko, eta Iruñean plaza bat 38 biztanleko; hau da, Alde Zaharrak jasaten duen presioa zazpi aldiz handiago da.

Alde Zaharreko datuak hirian zehar banatuko balira, oso bestelako kontua litzateke; akaso hor egon daiteke irtenbidearen zirrikitueta bat, Iruñea hiri txikia da eta toki urrunenetik ere ordu erdian oinez zentroan zaude eta 10-15 minutuan autobusez. Horrek ez luke auzoa eta turismoaren arteko arazoa konponduko, baina etxebizitzaren prezioaren arazoa arinduko luke bederen.

Baina turismo masiboak harresi zaharrak ditu maite, kalekka estuak, etxe oker eta antzinako plaza baztertu eta txikiak. Eta agintariek ere horiek biziberritzen dituzte, turisten bazkaleku eta diruaren babesleku. 2006ko krisiaren ondoren, higiezinaren esparrutik ihes egin eta turismoan babestu da diruaren zati bat. Ondorioa, alokairuko etxebizitza gero eta garestiago da.

Ondorioak ez dira txantxetakoak, bereziki ahalmen ekonomiko txikiaren dutenentzat, gazteak eta etorkinak. Iruñeko Udalaren Soziologia Sailak Iruñeko eta Alde Zaharreko datu orokorrak aztertutitu hainbat alorretan eta ondorioak latzak dira auzoarentzat: 2006tik 2018ra, Iruñean biztanleria %3,9 igo da, Alde Zaharrean %10,9 jaitsi; Iruñean 5 urtetik beherako haurren kopurua %11 jaitsi da, Alde Zaharrean %34,8; eta hirian, etorkinen populazioa %12 igo den bitartean, Alde Zaharrean %44,5 jaitsi da. Ondoko orrialdean diren koadroan ikus daitezke kopuru hauek modu argiagoan.

Airbnb kontrolatu beharra

Hainbat arrazoi izan daitezke auzo batentzat larria den galera horretan, baina bi bederen argiak dira: bat, ostalaritzaren presio handia eta hainbat gunetan honek auzokideekin sortzen dituen arazoak; eta bi, eta seguruenik faktore garrantzitsuena, etxebizitzaren salneurriaren garestitzea, turismoaren handitzearen eraginez. Erantzule argienetako bat Airbnb da. Ez da bakarria, baina bai gehien ikusten dena, kaltegarrietakoa eta mugatu ezean eten gabeko hazkundean jarraitzen duena, triskantzak ezker-eskuin barreiatuz.

Beste hiri batzuetan arazoa askoz larriagoa da. Beatriz Corredor Espainiako Gobernuako Etxebizitza ministro ohiak (PSOE) duela gutxi Madrilen egindako mahai-inguruan azaltzen zuenez (*El Diario*, 2018-4-19), herritarrek dagoeneko ezin dituzte garai bateko hipotekak eskatu, prekarietateak ez dielako uzten.



Turistak Iruñeko Udal plazan dagoen turismo bulegoaren aurrean.

Orduan, milaka pertsonak alokairura jo du eta Estatuan alokairuzko etxeen merkaturia urria denez, prezioek gora egin dute. Iruñean egoera horietara ez iristea da kontua, eta alde aurretik neurriak hartzea, oraindik denbora dagoenean.

Baina Airbnb-k mundu osoan dakar etxeen garestitzea eta honek diru gutxien dutenak kanporatzen ditu alokairuetatik. Paris, Amsterdam edo Berlinen, beste askoren artean, mugatzen ari dira jada Airbnb-ren jarduera. Herrialde Katalanetan, esaterako, Balear Uharteetako Palma hiriburuko Udal Gobernuak (PSOE, Més eta Podem) hartu berri du neurri zorrotzena: datorren uztailetik aurrera pisu turistikoki gehiago jartzea debekatu du. Lehendik ere bazituzten beste neurri ugari, adibidez, ezinezkoa zen eraikin batean pisu turistikorik izatea auzokideen komunitatea aurka agertuz gero.

Alokairuaren salneurria igotzeaz gain, Airbnb-k gogotik kolpatu du ohiko ostatu sektorea, bereziki hotelak, eta hauek ere presio egiten ari dira haren jarduera muga dadin. 2017an Iruñean egindako *Efecto Airbnb* azterketaren arabera, Iruñean 738 etxebizitza iragartzen ziren Airbnb-n (%43 etxebizitza osoak, %51 gela pribatuak eta %6 gela partekatuek) eta horietako %33 Alde Zaharrean; plazei dagokienez, Iruñeko plaza guztien %42 dago Alde Zaharrean.

Hazkunde handia, eta legez kanpo

Orain arte aipatutakoez gain, legez kanpoko etxeak edo beltzean aritzen direnak daude. Meridiano Zero aholkularitzak egindako azterketaren arabera,

149 pisu turistikoki legezkoak dira, eta hauetan 939 plaza eskaintzen dira, baina 227 beltzean aritzen ziren, 790 plaza eskainiz. Alde Zaharrean Bizi elkartearen arabera, gainera, datu hauek txiki geratzen dira eta ziur dira gehiago ere badirela; ez da haien ustea bakarrik, hiri handietako joera da azterketa zorrotzak egin ondoren beti agertzen direla etxebizitza gehiago beltzean. Iruñeko Udalak arazo horri aurre egiteko etxebizitzaren errolda egingo du eta horrekin uste dute argi geratuko dela etxebizitza bakoitza zertarako erabiltzen den.

Datu hauek eta beste askok aspaldi piztu dute alarma gorria Alde Zaharrean Bizi edo Bizitzeko Alde Zaharra elkar-teentzat eta gogor ari dira lanean gaia- ren bueltan, bizilagunak eta Udala arazoaz kontzientziatuz. Maiatzean bertan, Europa mailan turismo masiboa pairatzen duten hirien SET elkarteak sortu da eta Euskal Herritik ere hor daude Donostia eta Iruñeko herri mugimenduak.

Denak du bere eragina egun auzoan bizitzen ari den hausnarketa prozesuan, baina Patri Perales EH Bilduko Iruñeko Udaleko zinegotziarentzat, datu batak marra gorri guztiak gainditu zituen eta zerbait egin beharraren kontzientzia areagotu: “2017ko uztailetik aurrera etxebizitza turistikoen hazkundea %50ekoa izan zen, 99 etxebizitzatik 149ra”. Beraz, bere esanetan, saihestu beharra dago lehen tabernekin izandako gehiegikeria orain etxebizitzekin gertatzea.

Eta zer egingo da?


Peralesen esanetan, 2015ean Udalera iritsi zirenean argi zuten zerbait egin behar zela turismo masiboa uxatu eta turismo jasangarria jorratzeko, eta horren fruitu izan zen Turismoaren Plan Estrategikoa Iruñean, 2017-2019. Orain, halaber, batetik Iruñeko Plan Orokorra eta, bestetik, Alde Zaharra babesteko eta erreformatzeko plan berezia (PEPRI, gaztelaniazko sigletan) aztertzen ari da Udal Gobernuak, eta aldaketak izango dira ostatu turistikoetan. Prozesu bat dago zabalik Udaletik, besteak beste bizilagunekin eta ostatu sektorearekin hitz egiteko. Sanferminen aurretik bideratu nahi zuten gaia, baina ez dirudi iritsiko direnik eta seguruenik irailera arte atzeratuko da Udal Gobernuaren erabakia.

Apirilaren 13an kazetari hau auzokideek egindako batzarrera hurbildu zen Plazara gunean, Alde Zaharreko Kale Nagusian iaz zabaldu zen zentro komunitarioan. Udal ordezkariekin bilera zuten ondorengo egunetan eta erabaki behar zuten zein jarrera eraman. 75 bat herritar bildu ziren batzarrean, haien artean hainbat elkartetako ordezkari. Gaia sakon eztabaidatu ondoren, bizilagunek argi zutela ikusi zen: udal arautan egingo diren aldaketetan, Alde Zaharra ostatu turistikoaren eremu saturatutzat jotzea eskatuko diote Udalari.

Beste neurri batzuk ere ari dira aztertzen Udalean. Batetik, Iruñea osoan pisu turistikoak lehenengo solairuan soilik egon daitezke, salbu eta Alde Zaharrean, non orain arte edozein pisutan egon daitezkeen. Bere garaian UPNk Alde Zaharra salbuetsi zuen berau "biziberritzen laguntzeko". Orain udalak eskatuko du arau orokor hori indarrean jar dadila Alde Zaharrean ere. Eraikineko beste solairuren batean etxebizitza turistikorik bada, lehenengoan ez jartzea ere eskatzen dute bizilagunek; Patri Peralesek dioskunez, berari eskaera logikoa iruditzen zaio.

Beste neurri batzuk ostatuaren esparrukoak dira, hotelen eremukoak esaterako. Ostatu eraikin berri bat eraikitzeak gutxieneko distantzia bat egon behar du jadanik badiren beste hotelekiko. Nola kalkulatu da distantzia hori? Dagoen hotel edo ostatuaren fatxada nagusiaren altura bider sei metro. Hau da, 7 metroko fatxada duen eraikin batek, adibidez, ezingo du beste ostatu eraikinik izan 42 metro baino gertuago.


IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN NOLA GOGORTU DIREN BIZI BALDINTZAK



Oharra: Iruñeko Alde Zaharra eta hiriaren datu orokorren arteko konparaketa da, argi ikusten dira bi-hiru gauza: Alde Zaharrean biztanleriak Iruñean baino bizi baldintza gogorragoak ditu eta, ondorioz, beste auzo batzuetara alde egiten du. Bereziki gazteak eta etorkinak dira kolpatuenak, ume gehien izaten dituzten sektoreak, alokairuan gehien bizi direnak eta ekonomikoki ahulenak.

Iturria: Iruñeko Udalen Soziologia Departamentua.

OSTATU TOKIAK IRUÑEAN



Iturria: "Efecto Airbnb Pamplona-Iruñea" ikerketa, Montera34.

OSTATU ETA ETXEBIZITZA TURISTIKOAK IRUÑEAN, AUZOKA BANATUTA

AUZOA	Legezko ostatuak guztira	Araudipeco plazak	Bizilagunak guztira	1.000 biztanleko/plaza arautuak	1.000 biztanleko plaza arautuak + legez kanpokoak
Azpilagaña	0	0	7.535	0	0,7
Buztintxuri	2	8	8.707	0,9	1,3
Alde Zaharra	105	1.708	10.314	165,6	173,5
Txantrea	5	135	19.649	6,9	7,0
Zabalgunea	25	442	23.495	18,8	20,30
Ermitagaiña-Mendebaldea	55	1.544	17.013	90,8	92,1
Etxebakoitz	7	105	5.154	20,4	21
Iturrama	10	442	22.958	19,3	19,9
Mendillorri	1	2	11.621	0,2	0,6
Arrosadia	6	50	16.317	3,1	3,7
Arrotxapea	3	71	25.415	2,8	3,6
Sanduzelai	1	4	11.564	0,3	1,5
Donibane	1	4	20.115	0,2	0,8
GUZTIRA	221	4.515	199.857	22,6	23,7

Iturria: "Pamplona 2017. Análisis Urbano de la relación entre alojamientos turísticos y residentes". Meridiano Zero.

Unzu kolokan

Neurri hau aurrera aterako balitz ezingo litzateke hotelik egin Mercaderes kaleko Unzu saltoki ohiaren eraikinean. Dagoeneko bada horretarako proiektu bat eta hautsak harrotu ditu auzoan, gauzatze-kotan orain dagoen desoreka larria biziki areagotuko lukeelako. Proiektu honen arabera, Iruñeko hirugarren hotelik handiena –Iruñea Park eta Tres Reyes hotelak dira lehenak– eraikiko litzateke bertan, 277 ohe, luxuzko hamar apartamentu eta erlaxatze gunea eskainiz. Bada, distantzia neurri hauek onartuko balira, ezingo litzateke proiektu hau aurrera eraman, Udal plazan Pompaelo Hotela dagoelako eta La Perla Hotela Txapitela kalearen eta Gazteluko Plaza-ren arteko izkinan.

Patri Peralesen ustez Alde Zaharra saturatua dago, bereziki kale batzuk, esaterako Estafeta eta San Nicolas. "Baina, jakina, non da eremu saturatuaren muga?". Eztabaida handia aurreikusten da Udalean gai honekin, eta baita Gobernu Taldean ere. Esparru sozial eta politiko askotako herritarrek dituzte pisu turistikoak, edo alokatzen dituzte sanferminetan, eta ika-mika handia da gaiaz. Diru iturria da jende askorentzat, eta aldi berean, horrek eragin kaltega-

ria du beste askorengan, bereziki ahautenengan. Zer egin?

Iruñea:

600.000 pertsonak pasatzen du gaua urtean.

Donostia:

1.200.000 pertsonak gaua pasatzen du urtean

Alde Zaharra:

**plaza turistiko bat
5,4 biztanleko**

Iruñea:

**plaza turistiko bat
38 biztanleko**

2017. urtean

**149 pisu turistiko
legezkoak ziren;
227 legez kanpokoak**

Udal Gobernuaren zalantzak

Udal Gobernuak EH Bildu, Aranzadi eta Izquierda-Ezkerra ostalaritzako erai-kin eta etxebizitza berriei traba asko jartzearen aldekoak bide dira, baina ez dago batere argi Alde Zaharra eremu saturatutzat izendatzeko ausardia izango duten. Horrez gain, zalantzarik handienak Geroa Bai koalizioan bide dira, eta ez dirudi orain arteko datu andana nahikoa zaionik Alde Zaharra espazio saturatutzat jotzeko. Hala ere, egunotan ari dira aztertzen gaia Geroa Bai-ko udal taldean, eta aukera guztiak zabalik daude.

Bitartean, Andrea eta bere lagun gazteak pisu bila jarraitzen dute Alde Zaharrean: "Ezinezkoa da, gero eta garestiago daude". Batzuek amore eman dute eta, azken urteetan horren ohikoa bihurtu den gisan, Arrotxapeara jo dute: pisu merkeagoak dituzte eta auzoan zerbitzu hobeagoak. Inaki ere pisu bila dabil eta argi dio: "Saiatu nahi baduzu, baina azken asteetan txikitu ditut begiak idealista.com-en eta ez duzu topatuko 65 m²-ko etxerik hileko 650-700 eurotik behera". ■

INJUSTIZIA ETA ERRESISTENTZIA XVIII. MENDEAN

TRETATXU, LAPURREN GOBERNADOREA

Batxi Landa, *Tretatxu*, espetxean hildako beste gaizkile bat baino ez litzateke izango, ahozko tradizioan haren oihartzunak iraun izan ez balu. Baina kopia labur batzuen arrastoari segika, XVIII. mendeko errebelde baten biografia osatu du Hektor Ortega kazetariak. Historia honek erakusten digu jite soziala zuten bidelapurak uste baino gehiago zirela Euskal Herrian, eta menpeko klaseen babesa zutela handikien aurrean.

**Urko Apaolaza Avila**

@urkoapaolaza

IRUDIAK: ALBUMSIGLO19MENDEA.NET

XIX. mendeko bandolero sozial baten litografiaz eta Orozkoko Torrelandaren egungo argazki batez egindako irudi-muntaia. Toki horretan jarritako segadatik ihes egin ondoren zabaldu zen 'Tretatxu'-ren sona Bizkaian.



“Andratxu hori, ez beldurrik izan, *Tretatxu* lapurra naiz eta”, lasaitu zuen ahots batek Bermeoko Francisca Agirre, gauez bere etxeko atea kox-kox jo zutenean. Beldurrik izan behar ez zaion lapurra? Artxibo bateko agiri-sorta mardulen artean ezkutaturik geratu den esaldi kontrastesankor horrek, bere baitan darama bandolero sozialen esentzia: justiziarentzat gaizkile, herritar xehearentzat heroia.

Hektor Ortega kazetari deustuarrak Valladolideko Kantzelaritzaren Artxibotik berreskuratu ditu bermeotar emakumearen deklarazio hori eta beste asko. Euskal Herriko agiritegietan ere arakatu ditu auzi-atal lodiak, eta hala, XVIII. mendearen erdialdean Bizkaian izandako lapur sonatu baten ibilerak deskubritu dizkigu *Tretatxu*, *lapurren gobernadorea* (Txertoa, 2018) liburuan. Baina biografia ez ezik, harekin identifikatzen zen gizarte sail zabal baten erradiografia ere egin du egileak, ez alferrik geratu zaizkigu iruditerian gaizkilea harro lautatzen duten herri-kopla zaharrak:

*Tretatxu Larrauriko
Landako semie
Bizkaiko lapur danen
Gobernadorie*

Batxi (Bautista) Landa *Tretatxu* Larraurin jaio zen 1716an Landa oinetxean, eta 1751ko irailaren 9an hasi zuen bere legenda, beste hiru lagunekin Bilbotik irtenean lapurgintzari ekiteko asmoz. Karrera laburra, 1753an atxilotu baitzuten –zortzi urte geroago hil zen Valladolideko espetxean, nola ez dakigula–. Bi urtez ia etengabe hamaika lapurretak, segada hilgarri eta ihesalditan ikusiko dugu, batez ere Bizkaia eta Araba arteko mendateetan mandazainei bidera irtenda, eta baita abadeen etxeak asaltatzen eta agian kontra-

bando jardunean ere, Baionan, Ataunen, Bermeon, Iruñean, Urkiolan, Azpeitian... Fiskalak zazpi ekintza leporatu zizkion, baina askoz gehiagotan parte hartu zuela aditzera eman zuen; Bizkaiko korrejido-reak heriotza zigorrera kondenatu zuen horientatik.

Gaizkile beldurgarria agiri judizialen argitan, edo “herriko gorotza” agintarien ahotan –Orozkoko alkateak hala deskribatu zuen–. Baina hango koipea eta hemengo salda bananduta, *Tretatxu*-ren oso bestelako irudia osatu du Ortegak, bere garaian Eric Hobsbawnek proposaturiko bandolero sozialen ereduarekin zerikusi gehiago duena; historialari ingelesak ikusi zuen mundu osoan zabaldua zegoen lapur eskuzabalaren mitoak bazuela asko protesta “prepolitikotik”.

Euskal historiografiak, ordea, orain arte ez die bertoko bidelapurrei halako izaerarik eman, salbu eta Manuel Antonio Madariaga *Patakon*, “dekonari kendu eta ez dekonari emon” esaldi famatua haragitzen zuenari; honek ere “aberatsen kontrako instintuak” eraginda jardun ei zuen, Joseba Agirreazkuenaga EHUKo historia irakasleak iradoki duenez. “Euskal Herrian orain arte *Patakon* izan dugu kasu bakartzat –azaldu digu Ortegak–, *Tretatxu*-rekin bigarren kasu bat frogatu dugu, eta kasu gehiago daudela seguru nago”.

Zergatik dio hori kazetariak? Bere ustez gakoa bidelapurrak ikertzeko erabilitako iturrien irakurketan dago: ahozko tradizio ez-ofizialari ere erreparatu behar zaio, eta agiri ofizialei berri, galdara egokiak egin. Zorionez, *Tretatxu*-ren inguruan orain arte aztertu gabeko dokumentazio samalda aurkitu du: “Sekulako pagotxa da, aukera daukazu pertsona honen bizitzan murgiltzeko eta ikusteko berben atzean zer dagoen, jendeak benetan nola ikusten zuen”.

Auzi-kriminalak osatzen dituzten orrialde luzeetan, herritarren deklarazioek dekodifikatze bikoitza behar dute: hizkuntzarena batetik –euskaraz bizi ziren bizkaitar haien hitzei itzultzaileak zer esanahi eman zien jakin behar da– eta klaseen artekoa bestetik, menpeko baserritar xehearen mundu ikuskera oso bestelakoa baitzen: “Euren justiziaren kontzeptua ez zen inondik inora jauntxoek zabaltzen zutenaren berdina, oso urrun zeuden”, dio Ortegak. *Tretatxu*-ren bizitza mitifikatua borroka eremu bihurtzen da horrela: “Oso inpaktantea da ikustea korrejidoreen bandoetan gaiztoetan gaiztoena zen lapur hori bera izatea herritarrek kantatzen zuten heroia”.

Herritarrek “ez zuten saltzeko”

Tretatxu-k eta bere lagunak lehenengo lapurretak egin eta egun gutxira, 1751ko irailaren 13an, Manuel Lorra eskribaua Mungialdera bidali zuten isilpean, haiek harrapatzea. Haren txinelak zelatan ibili ziren, eta denera bost benta edo etxe miatu zituzten Mungian, Urdulizen, Larraurin eta Gatikan –*Tretatxu*-ren taldekide Batxi Zalduaren herrian–, beste horrenbeste lagun eraman zituzten atxilo Bilbora, baina haietako inor ez zen bidelapurra, haiek lagundu zituzten auzo eta senideak baizik. Ez zen aldi bakarra izango, orduz geroztik *Tretatxu*-k behin eta berriro egingo die ihes agintariei azeria moduan, “ez zuten saltzeko” irakur daiteke birritan bere biografian.

Bandolero sozialek herritarren ulermen eta babesa zuten, *Tretatxu*-k izan zuen bezala, eta estereotipo horrek biltzen di-tuen beste hainbat ezaugarri ere bai: bor-txa tentuz eta gehiegikeriarik gabe erabiltzea, lapurretak komunitatetik urrun egitea, ospea, adorea... Landako semeak maiz erakutsi zuen kuraia hori. Behin,

1744

Oran eta Cartagenan

Erregearen Armadan
10 urtez zerbitzatzea zigortua.

1748

Erbestetik itzulera

Mungialdeko
handikiekin talka.

1751-1753

Lapurretak eta segadak

Bilbotik irteten da hainbat lagunekin lapurgintzari ekiteko. Bizkaian jardungo da herritar askoren babesean. Azkoitian (Gipuzkoa) atxilotuko dute.



Bermeoko alkateari aurpegia ukan zion trabukoa eskuan, honek kalean erronda egiten ezagutu zuenean: “Batxi, geldirik zagoz!” oihukatu zuen emakume batek, eta alkatea bizirik atera zen atakatik.

Emakume hura Francisca Barandika Zarra zen, Bermeoko arrain-saltzailea eta *Tretatxu*-ren laguntzaile fidela. Emakumeak bidelapurren ondoan ikusiko ditugu maiz, batzuetan laguntza ematen, bestetan haien ekintzak estaltzen, beti sareak ehuntzen: “Oso independenteak dira, garai haietan normalak ez ziren gauzak egiten dituzte, ausardiaz”, dio Ortegak. Gure bermeotarrak adibidez, ez zuen erreparorik izan Bilbora arma eta arropa batzuen bila joateko, arriskuan zela jakinik ere, eta ondorioz denbora batez preso egon zen Zarra.

***Tretatxu*-ren bizitza, gatazka sozialen eszenatoki**

Tretatxu-ren bizitzan bada historia no-belesko bat bere izaera eta jokabideak ulertzen lagunduko diguna. Landa oinetxeko ugazaba zen Batxi Landa, etxea-

Ezkerrean, Ondarroako arrain saltzaileak. Kostaldeko emakumeek bazuten harremanik bidelapurrekin, euren kabuz atera behar baitzuten bizimodua. Eskuinean, diligentzia Gasteiz eta Bilbo artean XIX. mende hasieran.

» **HEKTOR ORTEGA:**
 “Uste izan dugu goikoek erabaki eta behekoek *amen* esaten zutela. Bada ez, eguneroko erresistentzia zegoen, *Tretatxu*-ren koplak irakurrita argi dago”

ri loturiko jaun ondradua, “hori asko zen Bizkaiko lege zaharrean”, baina ez nahikoa agidanez. Zer gertatu zitzaion lapurgintzari ekiteko?

Nekazaritza kapitalismoaren zerbitzura jarri zen XVIII. mende hartan, handiki gutxi batzuk aberastu eta etxagun asko erabat zorpetu ziren espekulazioaren ondorioz. Egoerak bete-betean jo zuen Uribe ingurua –Gatikan, esaterako, baserriar etxejabeen erdia maizter izatera pasa zen– eta *Tretatxu*-k ere korrituak ordaintzeari utzi zion, areago, etxeak su hartu zuen 1738an. Askorentzako irtenbidea “auto-zapalkuntza” zen, Ortegaren esanetan. Hori, edo matxinatu. Bistan da gure lapurrak zer bide hartu zuen.

1744ko gertaera batek hankaz gora jarriko du Landaren bizitza: emakume alargun batekin ohean harrapatuko dute. Emakume hori baina Butroeko

mesokraziako kide zen, Tellaetxe familiakoa, eta handiki horiek ez diote base-rritar apalari barkatuko egindakoa. Andreari ere ez noski, berriz ezkonaraziko baitute beste pertsona batekin, Elizaren orduko kode misoginoak baliatuz. Inolako epaiketarik egin gabe, *Tretatxu* hamar urterako bidaliko dute Erregearen Armadan zerbitzatzera, Oran urrunera eta Cartagenara.

Ez-bidezko zigor horrek betirako kolpatuko du Landako heroia, legez kanpo uzteraino. Armadatik lizentziatu eta 1748an herriratzen denean, *Tretatxu* eta handikien arteko talkak jarraituko du, tellaetxetarrak saiaturiko baitira hura jazartzen: itzuleran emaztea haurdun aurkituko du –berriz ere emakumearen gorputza botereak erabilia–, eta bera jipoitu egingo dute plaza publikoan, soka-dantzaren erdian, Antonio Tellaetxe Mungiako alkateak aginduta, herritarren harridura eta kexa eraginez. Iraina eta zigorra. Zer dela eta horrelako gorrotoa? Kazetariak argitu digu: “Muturreko kasu bat da, eta izan zitekeen kasu pertsonal bat, baina herritarrak alde batean jartzen direnean, kasu honetan legez kanpo geratzen denaren aldean, orduan *Tretatxu*-ren bizitza bihurtzen da gatazka sozialen eszenatoki”.

Ortegaren esanetan bidelapur honen kasuak erakusten du lehen ere menpeko klaseek bazutela nolabaiteko independentzia bat, euren justizia nahi bat: “Historian atzera egiten dugunean askotan ematen du goikoek erabaki eta behekoek *amen* esaten zutela. Bada ikusi dugu ezetz, eguneroko erresistentzia bat bazegoen, *Tretatxu*-ri buruzko koplak irakurrita argi dago”. ■



1754

Heriotza zigorra

Epaia errekurritu eta Valladolidera eramango dute.

1761

Kartzelan hil

Valladoliden preso zela hilko da, ez dakigu nola.

IKASKIDEAK, LAGUNTZAILE ONENAK

Elkarbizitza abiapuntu eta helburu, Ikasle Laguntzaileak proiektua jarri du martxan Santurtziko Bihotz Gaztea ikastolak, aurtengo Ibilaldiaren antolatzaileak. Jolastokian bakarrik egoten den ikasleari, garai txarra pasatzen ari denari edo bestelako arazoren bat duenari laguntzen diotenak dira ikasle laguntzaileak.



Ainhoa Bretos

@ob_ainhoa

ARGAZKIA: BIHOTZ GAZTEAK UTZIA

Berdinen arteko harremanak baliatuz, bizikidetza hobetzea da ekimenaren xedea. Dagoeneko sei urte daramatza Santurtziko ikastolak proiektua aurrera eramaten. Baina zer dela eta erabaki zuten martxan jartzea? Zergatik eta zertarako da garrantzitsua ikasle laguntzailearen figura?

Ikasleak protagonista

2011-2012 ikasturtean Ikastolen Elkar-teak antolatutako jardunaldi pedagogiko batzuetan izan zuten proiektuaren berri, Gaztela Mantxako ikastetxe batzuetan martxan zutela jakin zutenean. Ainhoa Urzelai ikasketa buruak azaldu duenez, elkarbizitzarako tresna egokia dela uste dute ikastolan: “Bizikidetzan gatazkak daudenean arau-haustekak zigorretako araudia badaukagu, baina protagonismoa eman nahi genien ikasleei, euren gatazkak kudeatu ahal izateko”. Izan ere, laguntza ikasleengandik datorrenean askoz eraginkorragoa dela dio Erika Gallego irakasleak, bai antzemateko bai konpontzeko, helduak baino lehenago konturatzen baitira ikasgelan dauden arazoez. Ikasleei behar dituzten tresnak eman eta lehenengo lerroan jarri dituzte, eurak izan daitezen beren

gatazken kudeatzaile nagusiak. Ikasle laguntzaile izateko, hori bai, hainbat ezaugarri bete behar dituzte.

Nor izan daiteke ikasle laguntzaile?

Ikasle laguntzaile izateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) aritu behar dira. Lehen Hezkuntzako azken urtean daudenean aukeratu egiten dituzte hurrengo ikasturtean laguntzaile izango direnak. Hautaketa hori ikasleek beraiek egiten dute, irakasleek prestatutako galdetegi baten bidez. Bertan galdetzen zaie, esaterako, nori kontatuko lioketen sekretu bat. Urzelaik esanda koaren arabera, ezaugarri batzuk bilatzen dituzte dinamika horrekin: giza trebetasunak garatuta izatea, konfiantzako pertsona izatea, eta abar.

Jarduera horretan hautatutakoak izango dira, ikaskideen arabera, ikasle laguntzailearen profilerak ongien egokitzen direnak. Konpromisoa hartzeko prest dauden ala ez galdetzen zaie orduan, eta baieztatzen dutenekin osatzen dute taldea. Proiektua martxan jarri zutenetik inork ez duela ezezkorik eman esan du Gallegok: “Ikasteko eta besteak laguntzeko oso prest agertzen dira beti”.



Laguntzen dituzten ikasleei dagokie-nez, edozein adinekoak izan daitezke. Ohikoena da laguntzaileen adin ingurukoak izatea, horiek direlako gehien ezagutzen dituztenak, baina bestelako kasuak ere izan dira.

Zer motako prestakuntza jasotzen dute?

Ikasturte hasieran formazio saioak jasotzen dituzte ikasle eta irakasleek. Beraiekin batera beste ikastetxe batzuetako partaideak aritzen dira, esperientziak ezagutu eta elkartrukatzeko. Hainbat adituren laguntza baliatuz, ikaskideak laguntzeko teknikak praktikatzen dituzte saio horietan, zalantzak eta kezak partekatzeaz gain.

Horren ostean, zentroko ikasle laguntzaileak taldeka antolatzen dituzte, eta talde bakoitzari irakasle tutore bat egokitzen diote. Berarekin bilduko dira hila-bete behin elkarbizitzan sortu diren balizko gatazkak kudeatzeko, zalantzak galdetzeko, ikusi eta sentitzen dutena partekatzeko... Dena den, beraiek horrela eskatuko balute, bestelako bilerak ere egin ditzakete tutorearekin.

Ikasturtean zehar, gainera, kanpoko erakundeen formazioa jasotzen dute



Jolas kooperatiboei buruzko ikastaroa jaso dute aurten ikasle laguntzaileek.

ikasleek. 2018an adibidez, jolas kooperatiboen inguruko saioak egin dituzte DBH 3 eta 4. mailako laguntzaileek. Halaber, kanpainak antolatzen dituzte ikastolan, eskola-jazarpenaren kontra-koak, esaterako.

“Denok sentitu behar dugu taldearen parte”

“Gure ikaskideek hautatu gintuzten, arazo bat izatekotan gurekin kontatuko

luketela esan zuten; beraz, konpromisoa hartu genuen”. Orain DBH 4. mailan dau-den ikasle laguntzaileek baiezkua eman zutenetik lau urte igaro dira, eta lortu dutenarekin oso pozik daudela azaldu digute: “Gure rola oso garrantzitsua da, baztertuta sentitzen dena taldean sartzeko. Azken batean, talde bat gara, eta denok sentitu behar dugu taldearen parte garela”.

Ikastolako giroa hobetzen lagundu dutela ere aipatu dute ikasleek, zenbait egoera salatuz, eta bolada txarra pasatzen ari den ikaskideari konfiantza ema-

nez. Normalean, baztertuta sentitzen den jendea lagundu izan dutela diote, “bere gustuengatik edo izaeragatik taldeetik aparte uzten dituzten pertsonak, gehienbat”. Kasu horietan, nahiko argi dute laguntzaileek zer egin behar duten: “Ezin gara denak aldi berean joan. Modu sotil batean hurbildu behar gara, bere modukoak garela erakutsi, eta noski, laguntzeko prest gaudela adierazi”.

Lortutako emaitzez gain, ikasi dutena ere azpimarratu digute: “Konponbide asko bilatu eta aurkitu ditugu, baina gu geu ere balore batzuetan hezi gara: enpatia garatu dugu, orain gehiago saiatzen gara besteen azalean jartzen eta sentitzen dutena ulertzen”.

Irakasleak ere oso pozik daude proiektuarekin. Ez dakite nolakoa izango litza-tekeen egoera programa martxan izango ez balute, baina natural erabiltzen duten erreminta hau oso garrantzitsua dela ikusi dute: “Gela batean zer gertatzen ari den jakiteko ezinbestekoa iruditzen zaigu”.

Aurrera begira, guztiz barneratuta duten proiektuarekin jarraituko dutela argi dute, esperientzia oso positiboa izan dutelako. Dena den, hobetzeko bideak ere bilatuko dituzte. Urzelaik azaldutakoaren arabera, beti dabilta gogoetan, eta ikasturte honetan esaterako, “Elkarbizitza Postontzia” jarri dute martxan. Ikasleek modu anonimoan idazten dute ikusten duten arazoren bat, eta hor sartzen dute papera. Bertan idatzitakoak ikasle laguntzaileek kudeatzen dituzte. “Oraindik ikasle askok ez dute erabiltzen, beraz, hurrengo urterako zerbait pentsatuko dugu. Azken batean, behar-rrizanan arabera, etengabe berritzen, indartzen eta garatzen ari den proiektua da Ikasle Laguntzaileena”. ■



SANTURTZI
udala - ayuntamiento

Stz

Ibilaldiarekin bat!

Helen Clark

“Hiru indar boteretsu ditugu munduan, AEBak, Errusia eta Txina, eta euren esku dago dena”

Zeelanda Berriko lehen ministro ohia eta Nazio Batuen Erakundeko Garapen Programako idazkari ohia da Helen Clark (Hamilton, Zeelanda Berria, 1950). Munduko emakume liderrik eraginkorrenetakoa, ustelkeriaren aurka egin duen lana nabarmendu izan dute. Hitzaldiak ematen ditu han-hemen, jasangarritasunaz eta emakumeak botere postuetan izatearen garrantziaz.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Amaia Zabala Tolosa

Unibertsitatean hasi eta berehala hainbat gazte mugimendutan sartu zinen.

Aldaketa politiko ugariko garaia zen eta gazteok oso engaiatuta geunden, aldatetako nahi genituen. Vietnameko Gerraren aurkako mugimendua bizi-bizi zegoen, Apartheidaren aurkako protestak ere bai, atzerriko militarrek Zeelanda Berrian baseak ezartzearen kontra ere altxatu ginen, hemengo indigenen eskubideen alde, Pazifikokoan egiten ari ziren proba nuklearrak salatzen genituen...

Unibertsitate irakasle egin eta gero, politikan sartu zinen Alderdi Laboristaren eskutik.

Politikak aldatzeko gobernua aldatzea ezinbestekoa da. Gelakide askok gobernua presionatzeko taldeetan lan egitea erabaki zuen, baina nik alderdi politiko batean sartzeko erabaki nuen, politikak aldatzeko biderik eraginkorrena delakoan. Gainera, garai hartan, 1972an, gobernu aldaketa izan zen, Alderdi Laboristak ira-

bazi zuen eta guk defendatzen genituen hainbat aldaketa egin ahal izan ziren: Zeelanda Berriko soldaduak etxera etorri ziren Vietnamentik, rugby taldeak He-goafrikaren aurkako finaleko partidua bertan behera utzi zuen Apartheidarekiko gaitzespena adierazteko, Gobernuak Pazifikoko proba nuklearen aurkako jarrera ofiziala hartu zuen...

1981ean parlamentari, ondoren Etxebizitza, Osasun eta Kontserbazio ministro, eta 1990ean lehen ministro. Postu horretara ailegatu zen bigarren emakumea izan zinen Zeelanda Berrian, eta bederatzirekin urte egin zenituen karguan.

Dagoeneko esperientzia handia nuen politikan, baina lehen ministro izatea gorenko mailara iristea da. Politika berriak egiteko eta herrialdea nazioarteko mugimenduetan sartzeko aro probetxatu nuen. Lan askoko urteak izan ziren, baina aldi berean oso hunkigarriak eta politak; azkar pasa ziren.

AEBak Irak inbaditzearen aurka gogor egin zenuen eta lehen ministro zinela Zeelanda Berria lehen herrialdea izan zen Afganistan berreraikitzen laguntzeko tropak bidaltzen.

Bai, baina nazio txikia izanik ez dauka gu gatazka eta politika internazionalerantz asko erabakitzerik. Gainera, AEBek aliatu fuerteak zituzten, horien artean Australia, Erresuma Batua eta Espainia. Afganistanen kasuan berriz, militar ingeniariak bidali genituen berreraikitzen laguntzeko (elekttrizitate instalazioak, ospitaleak, ikastetxeak...). Baina urtebetez soilik, oso arriskutsua baitzen soldaduentzat bertan bizitzea; ez ziren borrokarako tropak.

2009an Nazio Batuen Garapen Programako idazkari izendatu zintuzten, lehen emakumea erakunde honen buru. Zein izan zenuen erronkarik handiena?

Finantzazio-iturri guztiak argitu eta hauek publiko egitea. Erakunde guz-



tietan daude isilpeko finantzazio-iturriak eta hori ez da zuzena. Gizarteak gardentasun osoa merezi du. Erakunde barruko txosten eta proiektuen inguruko informazio guztia publiko egiten ere lan handia egin nuen, herritar guztiek sarbide irekia izan zezaten. Bestalde, lehenengo lanetako bat izan zen ohiko lan egiteko sistema tradizionaletik atera eta Garapen Programak munduan dituen bulegoetan egiten duten lana publikoari ezagutzera ematea, horretarako sare sozialak erabiliz. Izan ere, kontatzeko historia izugarriak zituzten eta oso garrantzitsua iruditu zitzaidan horiek zabaltzea.

Idazkari izatera iritsi eta bi urtera, munduko erakunderik ireki eta gardenenaren saria jaso zuen Garapen Programak.

Erakundearen kulturen eta funtzionamenduan erabateko aldaketa izan zen, lorpen izugarria. Inongo erakundetan ez da inoiz dena primeran joango, ezta

inongo gobernutan edo GKEtan ere, baina gakoa da gauzak oker doazenean aurre egin eta gardentasun osoz konpontzea.

Garapen bidean dauden herrialdeetan aritu zara lanean. Zein zentzutan lagundu diezula esango zenuke?

Erakunde erraldoi bat lideratu dut baina ezin izan naiz denera iritsi eta gai batzuetan zentratu behar izan dut. Maila eta prestigio altuko erakunde internazionala izanik, errazagoa da botere eta eragin gehien duten pertsonengana iristea eta lorpenik handiena horixe izan dela esango nuke, presidenteengana eta ministroengana iristea. Garatzen doazen herrialdeak dira, baina horretarako estrategia eta plangintza egokiak behar dituzte eta lorpena da gobernu hauei ematen zaien diru-laguntza iraunkorra izatea, agenda globalean sartuz. Gauza bera jasangarritasunari dagokionean, kooperazio lan handia egin dugu ho-

» “Erakunde guztietan daude isilpeko finantzazio-iturriak eta hori ez da zuzena. Gizarteak gardentasun osoa merezi du”

» “NBEk ez du inongo parte-hartzerik egingo Sirian, potentzia handiak beraien artean ez baitatoz bat erabakietan eta inongo idazkari orokorrek ez du potentzien tartean sartu nahi. Horregatik, Idazkariaren rolak aldaketak behar ditu”

» “Emakume arrakastatsuak nahi ditugu, baina ez diegu aukerarik ematen. Emakumeok jabetu behar dugu errealitate hau ez dugula horrela aldatuko: haserretu, antolatu eta alarma soziala sortu beharra dugu”

» “Hedabideek Trumpez eta Brexitaz besterik ez dute hitz egiten eta bada beste mundu bat, garapenean dauden herrialdez osatua, zeinak munduko populazioaren %80a hartzen duen”



rretan ere. Baina beti ere herrialdearen eskaeren eta erritmoaren arabera; nahi dutena eta eskatzen dutena konpontzen lagundu behar duzu une bakoitzean, ezin duzu ezer inposatu, baina Nazio Batuen Erakundeak zehatz-mehatz jarraitu nahi du agenda globala eta hor eztabaida handia sortu ohi da. Uneotan, Nazio Batuen lan handiena klima aldaketa da eta hark darama diru zatirik handiena, 4 bilioi inguru, eta kopurua ziztu bizian ari da handitzen.

Larrialdi egoerako herrialdeen garapenean ere parte hartu du Programak.

Bai, Siria, Somalia edo Yemenen esaterako. Gerra izugarriak dituzten herrialdeak izan arren eta gatazkako eragileen presioak ikaragarriak izan arren, Nazio Batuen Garapen Programak dirua lortu du herrialde horientzat. Bertako erakundeekin elkarlanean, herritarrek bizi ahal izateko gutxieneko baliabideak eskaintzen saiatu gara. Gutxieneko ekonomia batek aurrera jarraitu beharra dauka, bizitzak aurrera jarraitu behar du.

Nazioen arteko gerrak saihesteko sortu zen NBE, 1945ean. Horretarako erakundeak bere esku dagoen guztia egiten duela uste duzu?

Ez guztiz. Tentsio handiko garaian gaude. Hiru indar boteretsu ditugu munduan, AEBak, Errusia eta Txina, eta euren esku dago dena. Aldiz, beste herrialde batzuk segurtasun kontseiluan egon ere ez daude. Gainera, idazkari orokorraren postuak gero eta botere gutxiago du, herrialde indartsu horiek gainetik dituelako. Idazkari orokorraren rolak aldaketak behar ditu: arriskatu

Ezkerreko irudian, Pentagonoan, 2002an. Eskuinekoan, Nazio Batuen Erakunde.

eta jarrera hartu behar du. Siriako gerraren kasuan gertatzen ari dena ikusi besterik ez dago. NBEk ez du inongo parte-hartzerik egingo, potentzia handiak beraien artean ez baitatoz bat erabakietan eta inongo idazkari orokorrek ez du potentzien tartean sartu nahi. Ziu-rrenik, Siriako gerrak amaiera beldur-garria izango du, eta bertako eragileez gain Errusiak, Iranek eta hein batean Turkiak ere parte hartu beharko dute.

Zeintzuk dira NBEren erronkarik handienak?

Arazorik handienetakoa da AEBak klima aldaketaren aurkako neurrien akordiotik atera izana, nahiz eta aurretik ere izan diren AEBek NBEko programak babestu ez eta kontribuzioak ordaindu ez dituen urteak. Hori gobernatzea ez da erraza izango, baina politika oso dinamikoa da eta mugimendu handiak izaten dira. AEBak urrundu egin dira Parisko Akordiotik, baina Txinak berriz, esan du dena emateko prest daudela klima aldaketaren aurka borrokatzeko, eta eskerrak. Dena den, nik uste AEBak gogoeta egin eta itzuli egingo direla, gai-nontzean alferrik ari gara lanean.

2016an NBEko idazkari nagusi izateko hautagai aurkeztu zinen. Lehen emakumea izango zinatekeen postu horretan eta aldeko kanpaina handia egin zen, baina Antonio Gutierrez izan zen hautatua. Genero arazoa dago NBE-n?

Sekulakoa! Bederatzi idazkari orokor izan ditu sortu zenetik eta guztiak gizo-

nezkoak. 2016an horri buelta emateko aukera ezin hobea egon zen: emakumea izatea tokatzen zen bai ala bai eta primeran prestatutako hainbat emakume hautagai aurkeztu ginen, Irina Bokova bulgariarra eta Susana Malcorra argentinarra esaterako, baina alferrik. Politika arloan, makina bat emakume geratu dira bidean, ongi prestatuta egon arren eta primeran lan egingo luketen arren nahikoa boto lortu ez dutelako. Barregarria da, zoritxarrekoa: emakume arrakastatsuak nahi ditugu, baina ondoren ez diegu aukerarik ematen.

Mundu osoko emakume liderrekin batera hainbat kongresutan parte hartu duzu eta hainbatetan defendatu duzu zeinen garrantzitsua den arlo guztietako ardura eta lidertza postuetan emakumeak egotea.

Oinarrizko eskubide kontua da. Garapen Programan lanean aritu naizen urteetan ikusi dut oso herrialde gutxi dituztela emakumeak goreneko postuetan. Ez da zuzena soilik gizartearen erdiak izatea erabakiak hartzeko rola. Emakumeok erabat ordezkatuak izateko eskubidea dugu eta horretarako parlamentuen %50a izan beharko genuke. 60, 70 eta 80ko hamarkadetan feminismoaren mugimenduari esker aurrerapen asko lortu ziren eta oraingo belaunaldiak sarri uste du guztia eginga dagoela, baina zoritxarrez oraindik izugarri dago egiteko. 2017ko Munduko Ekonomia Foroan aurkeztu zuten txostenak dio egungo erritmoan, ehun urte beharko ditugula parlamentuetan ordezkaritza bera izateko eta 217 urte, lan esparruan berdintasuna lortzeko. Beraz, emakumeok jabetu behar dugu errealitate hau ez



dugula horrela aldatuko: haserretu, antolatu eta alarma soziala sortu beharra dugu. Jakina, horretarako gizonezkoen babesa ere behar dugu.

2016an *Forbes* finantza aldizkariak munduko 22. emakumerik boteretsuena izendatu zintuen, *Richtopia* aldizkariarentzat munduko bigarren emakume liderrik eraginkorrena zara sare sozialetan, eta Zeelanda Berriko emakumerik boteretsuenatzat jotzen zaizu. Jende askorengana heltzeko gaitasuna eta ardura dakar horrek.

Beti gertu nago Twitterreko eztabaidetan, txio bakoitza jende pila batengana heltzen da-eta. Urte askoan izan naiz lider eta jende askok jarraitzen nau, jakin nahi dute arazo eta gatazken inguruan zer iritzi dudan edota ikusgarritasuna zein gairi ematen diodan. Normalean, inork interes handirik jartzen ez duen herrialde txikietako albisteen inguruan txiokatzen dut. Azken asteetan esaterako, Maldiva Uharteetako eta Gambiako gobernuetako gatazken jarraipena egin dut, hedabideek Trumpez eta Brexitaz

besterik ez baitute hitz egiten eta bada beste mundu bat, garapenean dauden herrialdez osatua hain zuzen, zeinak munduko populazioaren %80a hartzen duen.

Zure karreraren zehar inoiz galdu al duzu politikarekiko esperantza?

Ez, eta une etsigarriak bizi izan ditut gero! Ni lehen ministro izan ondoren, politika erabat ezberdina zuen hautagai kontserbadoreak irabazi zuen. Baina sistemak horrela funtzionatzen du. Politikaren bitartez aldaketa asko lortu daitezke eta Zeelanda Berria bezalako demokrazia txiki batean oraindik eta gehiago. Europan, une honetan politika sistema oso zatituta dago, alderdi demokratiko tradizionalak presio handia ari dira egiten herrialde askotan, baina Britainia Handian adibidez Alderdi Laboristak irabazi zuen inork espero ez zuenean. Portugalen, gobernu progresista ezartzea lortu dute lau alderdiren koalizioaren bitartez; aldaketa posible da. Gobernu progresista lortzeko aukera dagoenero saiatu behar da, gizartean

eta ingurumenean oinarritutako politikak aplikatu daitezken. Zergatik ematen diote hainbesteko garrantzia Barne Produktu Gordina hazteari? Irabaziak garrantzitsuak dira, baina zertan inbertitzen den oraindik eta garrantzitsua goa. Alderdi kontserbadoreek nahi duten bakarra tasak ezartzea da. Egia da azpiegiturak mantentzeko dirua behar dela, hezkuntzak dirua behar du, pensioen sistemak dirua behar du... baina zergak kobratzearekin bat, gizartearen ongizatea ziurtatzea funtsezkoa da.

***One year with Helen* dokumentalaren amaieran zera diozu: "Zerbait konstruktiboa bilatuko dut". Zein proiektutan ari zara orain lanean?**

Bizitza guztia daramat politikan, batez ere nazioarteko gaietan, eta hori dela-eta hainbat erakundetatik deitzen didate ekimenetan parte hartu edo hitzaldiak emateko, bereziki jasangarritasunaren arloko gaiei edota generoari eta emakumeen lidertzari lotuta. Osasun gaietan ere gero eta gehiago ari naiz parte hartzen. ■

OSAKIDETZA

215.000 herritarrek eskatu diote euskaraz artatzeko

Osakidetzak kanpaina jarri zuen martxan herritarrei lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko hautuari buruz ohartarazteko. Ia 215.000 pertsonak aukeratu dute euskara lehentasun hizkuntza osasun zerbitzuarekin harremanetan aritzeko. Euskaraz komunikatu nahi dutela adierazi badute ere, Osakidetzak ez die bermatzen arreta euskaraz jasotzea.



Igor Agirre

@igoragirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Lagundu egiguzu hobetzen: aukeratu zure hizkuntza! lelopean aurkeztu zuten Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak herritarrek osasun arretan erabili nahi duten lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko kanpaina. 2017ko otsailean aurkeztutako egitasmoaren helburua EAEko osasun publikoarekin harremana izaterakoan herritarrek lehenesten duten hizkuntza zein den adieraztea zen. Aukera hori errespetatzea “errealitate soziolinguistikoak eta erabilgarri dauden zerbitzuek eta baliabideek” baldintzatuko dutela jakinarazi zuen osasun zerbitzuak kanpaina abiatzearekin batera. Ekimena 2013 eta 2019 urte artean Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren baitan kokatzen da.

Artatua izaterakoan nahiz Osakidetzarekin komunikatzeko garaian lehenesten den hizkuntza hautatzeko hiru modu daude gaur egun: osasun zentrora gerturatuta, medikuari edo erizainari kontsultan adierazita, eta internet bidez kontsultatu daitekeen osasun karpetan sartuta. Momentuz, Osakidetza-ren zerbitzua jaso dezaketen %40ak egin du lehentasunezko hizkuntzaren hautua eta guztira, 215.000 herritarrek lehenetsi dute euskara; zifra horretatik

ondorioztatu daiteke EAEn euskalduntzat hartzen den kopuru osoaren %24ak euskara hautatu duela Osakidetzarekin komunikatzeko.

Osasun zentroetan lehen mailako arreta euskaraz eskaintzeko aukera denean ere, normalean ez da modu proaktiboan eskaintzen, hizkuntza normalizazio planaren ebaluazio txostenaren arabera. Bertan aipatzen denez, pazienteak euskaraz egiteko eskatu arte itxaron ohi da eta hala ez bada, beharrezkoa izaten da beste osasun behargin euskaldun batek paziente kupoa beteta ez izatea profesional euskaldunarengana aldatu ahal izateko. Horren adibide da euskara lehenetsi dutenen %13ari soilik eskaini zaiela mediku, erizain edo emagin euskalduna, erdaldunaren orde. Osakidetzak egindako inkestaren arabera, euskara lehenetsi duten pazienteen %55ak adierazi du ahozko komunikazioa euskaraz egin ahal izan duela medikuarekin edo erizainarekin. Hautatutako hizkuntzaren arabera, mediku edo pediatria euskaldunera aldatzeko aukera izan dute inkestatuen %21ak eta zifra hori %12,7ra apaltzen da mediku espezialisten kasuan.

Lehen aipatutako kanpainaz gain, ‘e’ letra duen ikurraz identifikatzeko auke-

ra ere eman zaie osasun arloko langileei eta erabiltzaile nahiz profesionalak “oso erantzun positiboa” eman dutela azaldu du Osakidetzak Euskara Planaren tarterako balorazio txostenean. Txostenean agertzen denez baina, profesional kopuru handi batek ‘e’ etiketa jartzeari muzin egin dio, beldurra, naturaltasun falta edo egokitasunez hitz egiteko gaitasun eza argudiatuta. Horretaz gain, badira lehen agurrean euskaraz egin nahi ez duten profesionalak eta horren ondorioz, eta Osakidetza Euskararen Planak dioen moduan, erantzuna euskaraz jaso gero elkarriketa hizkuntza berean jarraitzeko gogorik ez duten profesionalak ere.

Eskatu bai, baina jaso?

1984an sortu zen Osakidetza, EAEko Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legea onartu eta bi urtera. Lege horrek eskubideak aitortzen dizkie herritarrei –osasun arreta euskaraz jasotzea tarteko– eta betebeharrak eskatu erakundeei. Horri erreparaturik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiko Arantza Aranbururen ustez Osakidetza “beltzune bat” izan da orain arte herritarren eskubideei dagokionez: “Berandu dator kanpaina hau. Egitura sortu zenean erdigunean jarri izan balituzte euskara eta hizkuntz





- » Arreta euskaraz nahi dutela esan dutenen %13ari soilik eskaini zaie mediku, erizain edo emagin euskalduna
- » Osakidetzan arreta euskaraz eskatzeko hiru modu daude: osasun zentrora gerturatuta, medikuari edo erizainari kontsultan adierazita, eta internet bidez kontsultatu daitekeen osasun karpetan sartuta

eskubideak, beste egoera batean geun-deke gaur egun. Baina sistema gaztelaniaz jarri zuten martxan eta horren ondorioz zailtasun gehiago sortu dira”.

Lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko kanpainari eta zerbitzua euskaraz emateko aukerari ere erreparatzen diote Behatokian: “Ez du inolako zentzurik erabiltzaileei galdetzea osasun arreta zein hizkuntzatan nahi duten, ondoren erakundea zerbitzua euskaraz emateko prestatuta ez badago”. Gaur egun, Osakidetza: 45 urtetik beherakoek euskalduntzen dute, batik bat, Osakidetza: 45 urte azpiko %77k dute ziurtatuta euskara eskakizuna eta 45 urtez gairiko %29k.

Behar bezainbeste profesional euskaldunen faltaren adierazle dira Behatokian

jasotzen dituzten herritarren kexak. Are gehiago nabarmentzen da egoera hori ordezkapen edo oporraldietan. Osakidetza hainbat jokabideren koherentziari buruz zalantzak ditu Arantza Aranburuk: “Ordezkapenentarako profesional euskaldunak jartzen ez dituztenean, horiek lortzeko zailtasunak dituztela argudiatzen dute. Beste alde batetik, ordea, kexak jasotzen ditugu euskaraz ikasten ari diren ikasleek ikasgai jakin batzuk ezin dituztelako egin euskaraz edo praktikaldien %90 gaztelaniaz egin behar dutelako”. Euskarazko profesionalen kopuruan gabeziak izanda, arduraz jokatu beharko luke erakundeak Aranbururen ustetan eta etorkizuneko profesionalen prestakuntza zaindu.

Hizkuntz Eskubideen Behatokian ere jaso dituzte lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko kanpainari buruzko kexak.

Bizkaitik jasotako bi kexa ditu gogoan Aranburuk; biak ala biak, kanpainaren kartela gaztelaniaz bakarrik zegoelako. Gaztelaniazko kartela ipintzearen zentzua jartzen du ezbaian Behatokiko kideak: “*Elige tu lengua* jartzen zuen kartelean. Kontuan izan behar da identifikatu beharreko herritarrek euskaldunak direla, erdaldunek bermatuta baitituzte beren hizkuntza eskubideak. Kanpaina modu nahasgarrian zegoen ingida”.

Kanpainari begira bideratutako kexek ez zuten erantzunik jaso Behatokian. Horiez gain, aipatzekoa da 2016an, euskarari lotutako 245 kexa jaso zituela Osakidetza, horietako asko espezializatuen alorrean. Herritarrek badute zerbitzua euskaraz jaso nahi dutela esateko aukera. Orain Osakidetza du lana herritarren eskubideak bermatzeko. ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 5. ALDIZ ABIAN

Hernaniarrok erabakiko dugu
2019ko aurrekontuaren **500.000 euro** zertan inbertitu

erabaki.hernani.eus



Hizkuntza Eskubideen Protokoloa

EUSKAL BERTSIOA ONTZEN

ARI DIRA 80 ERAGILE

Urte eta erdi pasa da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa Donostian aurkeztu zutenetik. 185 neurri prestatu dituzte Europako hizkuntza gutxiagotueta komunitateen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Europarako neurriak horiek. Orain orde, neurriok Euskal Herrira, euskarara, egokitze ordua da. 80 eragile aritu dira neurri bakoitzaren ezaugarriak zehazten. Hizkuntza politika berri bat gauzatzeko bide eman dezakeela adierazi du Kontseiluak.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: JON URBE / FOKU



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Haizpea Abrisketa (Kontseilua), Amagoia Osinalde (Urtxintxa), Josu Waliño (PuntuEus), Amaia Aurrekoetxea (LAB) eta Olatz Egiguren (Sortzen).

Protokoloaren Euskal Herriko Garapena (EHGarapena) deitu dio Kontseiluak hurrengo urratsari. EHGarapena tresnak euskararen eremuan lehentasunak adosteko balioko du. Erremintak hainbat sektoretan eragiteko asmoa du: administrazioan, hezkuntzan, eremu sozioekonomikoan, kulturean, hedabideetan, ingurune digitalean eta onomastikan.

Maiatzaren 9an, Kontseiluak jendarean egindako aurkezpenean, prozesu guztian parte hartu duten lau eragile protokoloa eta haren jarraipena nola bizi duten azaldu zuten, bakoitzak bere talaiatik.

Gogoeta partekatuzera gonbidatueta bat Amagoia Osinalde Urtxintxa Eskolako arduraduna izan zen eta aisialdian egiten ari diren lanketaren berri eman zuten. Osinaldek aitortu zuen haien esparruan gutxi hitz egiten dela euskararen

normalizazioaz, hitzetara ekartzea kosta egiten dela. Bestalde, protokoloa gauzatzekoan aisialdiko hezitzaileek protagonismo handia hartuko dutela uste du Osinaldek, haien esku egongo baita prozesu horren zabalkundea egitea.

Hezkuntza formalaren ordezkari, Sortzen elkarteak euskara arduradun Olatz Egiguren aritu zen. Neurri garrantzitsuena jarri zuen mahai gainean: murgiltze eta mantentze eredua. Hori egikaritzea funtsezkotzat du, 16 urteko ikasleek euskara maila egokia izan dezaten.

Josu Waliño PuntuEus fundazioko zuzendaria da. Euskara ingurune digitalean osasuntsu dagoela adierazi zuen, baina ahaztu gabe euskara inguratuta dagoela eta teknologia kanpotik datorrigula. Waliñoren ustez, estrategia digital baten beharra daukagu eta Hiz-

kuntza Eskubideen Protokoloak hori bideratzeko balio beharko luke. Besteak beste, euskarazko ingurune digitala atomizatuta dagoela azpimarratu zuen.

LAB sindikatuko Amaia Aurrekoetxeak eremu sozioekonomikoaz jardun zuen eta protokoloak zehaztutako lau puntu azpimarratu zituen. Batetik, ofizialki lehen aldiz langileek hizkuntza eskubideak dituztela jasotzen da; bigarrenik, orain arte lan mundua euskalduntzea maila abstraktuan irudikatu bada, orain EHGarapenak neurri zehatzak jarriko ditu eskura; hirugarrenik, komunitate osoa hartzen da kontuan: enpresaburuak, langileak, bezeroak eta administrazioa; eta laugarrenik, eremu sozioekonomikoa protokoloan eremu bereizi gisa (eta ez gizartetik kanpo balego moduan) hartu izana azpimarratu zuen Aurrekoetxeak. ■

DISNEY AZALERATU ZUEN GREBA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Hollywood, 1923. Walter Elias Disneyk The Walt Disney Company sortu zuen. Sortzaileak etengabe gogorarazten zuenez, Hollywoodera eskuan kamera zahar bat zuela eta poltsikoan 40 dolar zituela iritsi zen. Eta 1937an, *Edurne-zuri* animaziozko lehen luzemetraiak izugarrizko arrakasta lortu zuenean, “amets amerikarra” gauzatu zuen, inguruan lantalde idilikoa bilduta. “Osaba Walt” esaten zioten langileek.

1928an konpainiak zazpi langile zituen eta 1937an, aldiz, ia mila. 1938an Screen Cartoonists Guild (SCG) animatzaileen sindikatua sortu zen eta, berehala, Herbert Sorrell ezkerreko sindikalista buru, egitura sendoa osatu zuen arautu gabeko jardunaren gehiegikeriei aurre egiteko. Baina “Osaba Waltek” balio paternalista zaharkituei eutsi zien, eta langileei sindikatzea debekatu.

Hala ere, hainbat langile, besteak beste Edurne zuriren amaordea, Goofy eta Gepetto pertsonaiak sortu zituen Art Babbitt marrazkilaria, SCGn sartu ziren. Disneyk bazter-nahasletzat eta boltxebiketzat jo zuen Babbitt eta 1941eko maiatzaren 28an kaleratu zuen, beste 16 langilerekin batera. Biharamunean hasi zen Disneyko marrazkilarien greba.

Sindikatuaren debekua eta kaleratzeak izan ziren grebaren piztaile, baina atzean askoz gehiago zegoen. Batetik, estudioa-



Disneyko grebalariak protestan, 1941eko udaberrian.

LOS ANGELES TIMES / UCLA LIBRARY

ren hasierako politikari jarraiki, filmetako kredituetan ez zen animaltzaileen izenik agertzen, soilik Walt Disneyrena. Gainera, soldaten banaketa erabat desorekatua zen eta irizpide subjektibotatik oinarrituta zegoen. *Edurne zuri*-ren arrakastari esker, langileei egindako ordu estrak ordainduko zizkiela agindu zien. Baina irabaziak estudio berriak eraikitzea bideratu zituen azkenean.

Gutxi gorabehera langileen erdiak bat egin zuten grebarekin, baina enpresaren jarduera erabat gelditzea lortu zuten. Disneyren jarrera oldarkorrek ez zuen egoera hobetzen lagundu. Azkenean, greba piztu eta bost astera, Disneyk gobernu federalaren bitartekaritza

onartu zuen eta atzerrira alde egin zuen. Grebaren amaieran, kaleratutako langileak itzultzea, sindikatzeko eskubidea eta soldaten igoera lortu zuten. Baina handik aurrera Disneyk lan-baldintzak nabarmen gogortu zituen eta grebalari gehienek enpresa uztea lortu zuen. Epe luzean, bere burua garaitzat jo zuen, “endredatzaile eta komunista arriskutsuak uxatzea eta konpainia garbitzea” lortu zuelako.

Eta McCarthyren “sorgin ehizaren” babesean, etxe barruko “garbiketa” kanpora zabaltzen ere ahalegindu zen. Besteak beste, iraganean hainbeste miresitako Charles Chaplin salatu zuen Jarduera Antiamerikarren Batzordean. ■



AMR NABIL

Tutankamonek ez du gehiago ematen

Nicholas Reeves egiptologo ingelesak teoria hau proposatu zuen 2015ean: Tutankamon faraoi gaztearen hilobiko mendebaldeko eta iparraldeko hormetan (argazkian) ateen arrastoak daudela eta ate horien atzean biltegi bat eta Nefertitiren hilobi-ganbera ukitu gabea egon zitezkeela. Bada, Turineko unibertsitateko aditu talde batek georradar

bidez aztertu ditu horma horiek eta ikerketaren buru Franco Porcelliren hitzetan “hormez haratago ganbera ezkurik ez dagoela ondorioztatu dugu”. Eta Egiptoko instituzioek ondorioa berretsi dute. Albiste iturri agorrezina izan da KV62 hilobia 1922an aurkitu zutenetik, baina oraingoan albisterik eza izan da albiste. ■

Toki jakinetako gutiziak



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Boladan dira baso jangarriak; bai, bai, baso jangarriak. "Baso jangarriak" deitzen dira, batez ere elikaduraren aiekatik begiratuta egiten direlako basoaren sorkuntza eta zaintza.

Lehenaz gain, gero eta ohikoagoa da basotik hartutako zerbait jateko baliatzea. Zenbaitek aspaldi-aspaldiko ohiturak eta elikadura ahalik eta zorrotzen berreskuratu nahi dituzte: paleoanaria edo dieta paleolitikoa. Agi danean, garai haietan basoetatik zetorrena da jateko egokiena: animaliak eta landareak.

Hedatuagoa da basora joan eta zenbait elikagai biltzeko ohitura: perretxi-koak, boilurrak, zainzuri berdeak eta abar. Sendabelarrekin ere izugarrizko historia dugu, eta, itxura guztien arabe-



Fiteron zumarraren loreak jateko ohitura dago; entsaladan edo zuzenean zuhaitzetik ahora.

ra, baita etorkizuna ere. Gero eta mai-zago ikusten ditut belar horiek lantzeko tailerrak eta ikastaroak egiteko deialdiak. Baita basalandare jangarriak lantzeko ere: zein diren jangarri, zein ez, zein gordinik, zein prestatuta... Ez gara harritzen entsalada baten edo beste edozein jakiren laguntzaile basoko lore edo hostoren bat ekartzen badigute.

Duela gutxi aipatu zidan langun batek, Japonian udazkenean basoan astigarren (*Acer spp*) hostoak bildu, gatzetan garbitu eta kontserbatu eta gero nola arbal-datuta jaten dituzten. Oso toki jakinetan soilik topa omen daiteke jaki hori.

Udaberriak geurean ekartzen dituen landare batzuen eta besteen puntta berriek nori ez diote ahoa urtu? Oso toki

jakinekoa da, Nafarroa hegoaldeko Fiterokoa zumarraren (*Ulmus spp*) loreak jateko ohitura; entsaladan bezala, zuzenean zuhaitzetik hartu eta ahora. "Txopeta" deitzen dute. Gauza samurragorik!

AEBetan eta Japonian garoen udaberriko hosto berriaren puntta kiribildua jaten da. Japonian ez dakit zein espezie-takoak, baina AEBetan estimatuena ostruka garoa da, *Matteucia struthiopteris*. Salmueran edukita edo egosita, bietara jaten dituzte. Jende gutxiren gutizia, oso toki jakinetan. ■



943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Baratzeko zaporeak

Gozatu barazkien benetako zaporeez zure baratze edo hiri baratze ekologikoa eginez.
Landa itzazu orain!



PLENTZIako II. AZOKA AGROEKOLOGIKOA

Era guztietako produktu ekologikoak herritarren eskura

**Garazi Zabaleta**

@tirikitran

ARGAZKIA: TXAKINARTO KONTSUMO TALDEA

Bigarren urtez jarraian, azoka agroekologikoa antolatu du Plentziako Txakinarto Kontsumo Taldeak. Maiatzaren 20an egingo da.

Inguruko ekoizleen erakusleihu

“Ez dugu gure kontsumora soilik bideratutako taldea izan nahi. Herrian eta jendearen buruetan eragiteko asmoa dugu” dio Gotzone Butron Kamiruaga taldeko kideak. Herritarrek inguruan dituzten ekoizleak eta horien produktuak ezagutzeko eta bestelako kontsumo moduak herriari eskaintzeko erreminta da Butronen ustez azoka.

Zer topatuko du maiatzaren 20an Plentziara hurbiltzen denak? Bada, kasik denetik: Okela, ogia, arrautzak, barazkiak, marmeladak, garagardoak, pizzak, pasta, kosmetikoak... Kontsumo taldearen ohiko ekoizleek hartzen dute parte batik bat azokan, baina besteei ere zabalik daude. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 15:00ak bitartean kaleko



Maiatzaren 20an egingo du II. Azoka Agroekologikoa Plentziako Txakinarto Kontsumo Taldeak.

kontzertuak, zuzeneko irratsaioa, bidezko merkataritza produktuen dastaketa eta lore eta belar mandalen tailerra izanen dituzte. Aurten herriko tabernek ere parte hartuko dute azokan, bertako produktuekin prestatutako pintxo bereziak eskainiz.

Kalitatearen berme

Azokaz gain, inguruko ekoizleengana

irteerak eta horien produktuekin dastaketak antolatu ohi ditu Txakinarto Kontsumo Taldeak urtean zehar. Ekoizleekin zuzeneko harremana edukitzea da euren ustez kalitatezko produktuak jasotzeko bermerik onena: “Ekoizpen ekologikoa, gure ustez, konpromiso bat da. Zigilua ez da nahitaezkoa guretzat, gure ekoizleek lan nola egiten duten gertutik ikusi baitugu, ezagutzen dugu”. ■

maiztasunak 18, 19, 20

NAVARROAKO

III. Azoka Ekologikoa

IRUÑEKO AUTOBUS GELTOKI ZAHARRA

www.navarraecologica.org

EGUNERO: Produktu dastaketa, hitzaldiak, haurrentzako jarduerak, show cooking... etorri Nafarroako elikagai ekologikoen merkaturik handienara

CPAEN NINPEK

European Union

azoka

JARRI ZURE GAUZAK SALGAI AZOKAN

Nork? ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.

Zer? Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...

Nola? Oso erraz. Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala.

Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.

Zertarako? Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

www.argia.eus/azoka

EGUZKI-LORE KREMA

Eguzki-lore krema egiteko, eguzki-lorearen sustraiarekin beratutako almendra olioia erabiltzen da. Oso usain berezia eta atsegina du, eta flabonoideak eta substantzia antibiotikoak ditu (batez ere Gramm + bakterioak).

Erabilerak:

- Dermatitis, aknea, erupzioak edota ekzema dituzten azalen tratamendu berezia.
- Estriak, markak eta orbainak dituzten azalen tratamendua eta erredukazioa.
- Erredura arinak dituzten edo eguzkitan denbora luzean egon diren azalen tratamendua eta erredukazioa.



19 euro

77 salgai ditugu ARGIAren Azokan:
argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, esku-lanak, laminak eta mapak, gorputza, elikagaiak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak.
ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 27 gai ere badira!

Eguzki-lorez egindako beste gai batzuk:



Eguzki-lore gorputz olio

Osagaiak: Eguzki-lorearen sustraia beratzen izan duen almendra gozoen olio, ilena eta artemisia. 50 ml.

25 euro



Eguzki-lore gorputz lozio

Osagaiak: Eguzki-loreen sustraia beratzen izan duen almendra olio, arrosa hidrolatoa, laranja loreen hidrolatoa, ilena, izpilukua, artemisia. 200 ml.

23 euro



Eguzki-lore xaboa

Osagaiak: Eguzki-lorea, ilena, artemisia eta almendra gozoak. Eskuz eginda daudenez, itxura, kolorea, testura eta pisua pixka bat aldatu daitezke. 80-100 gr.

15 euro



ARGIAKO LANKIDE BERRIA

Hamaikakoa osatu dugu



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ezker hegaletik, Amaia Lekunberri markinarra jaun-andereok; ARGIAren udaberriko fitxajea. Abisatu nizuen aurrekoan kide berri bat izango genuela laster gure artean, eta izenik eman ez banizuen ere pista anitz baziren testuan. Hasia da taldean lanean, eta dagoeneko bota ditu txut batzuk sarera. Ilusioz eta gogotsu iritsi da Lasarte-Oriako egoitzara eta laster ikusiko duzue aldizkari orrietan bere izena, ziur.

Hautaketa prozesuaz aritu nintzaizuen orain bi ale, ARGIAko lantaldearen irizpideez; baina orain Amaiarekin berarekin hitz egiteko aukera izan dut, martxan hasi eta astebetara.

Kazetaritza ikasia zara, baina lehen aldiz hartu duzu hori lan profesional moduan, ezta?

Bai, hemezortzi urterekin ikasketak aukeratzekoan kazetaritzaz nuen iritzia beste bat zen; erromantikoagoa, agian. Baina karreraren zehar irudi hori erortzen joan zitzaidan pixkanaka eta desmotibatzen joan nintzen.

Beste ate batzuk irekitzea erabaki zenuen.

Ikerketa feministan jardun dut lanean, besteren artean. Baina tarte horretan

nire aldetik ere egin ditut kazetaritza lanak; Argia.eus-eko *Arma tiro klik* bloga da horren erakusle.

Zertara dator hedabideen mundura saltoa orain?

Kazetaritza ulertzeko dudaren moduarekin gutxi bezala bat egiten du ARGIAk, eta Euskal Herrian erreferentetzat dut. Ez neukan edozein komunikabidetan lan egiteko asmorik, baina aukera hau suertatu zen, eta probatu beharra neukan. Eta hara!

Erreferentetzat duzun horren parte ere bazara zu gaur. Zer duzu eskaintzeko?

Lehenik asko dut ikasteko, baina emateko ere badudan ustea dut. Sinesten dudaren proiektu bat da ARGIA, gustuko dut egiten duen lana eta lana egiteko duen modua; eta bertan nire aletxoak jartzeko ahaleginduko naiz. Bizkaitik arituko naiz, gainera, eta lurraldetasunak ere izango du pisua nire lanean.

Zer gaitan topatuko zaitu irakurleak?

Eroso sentitzen naiz feminismoaren munduan, asko landu izan dudana gaia da eta izugarri interesatzen zaidana. Hortik abiatuta, gizarte gaietan ikusiko du sarri nire sinadura irakurleak. ■

ARGIAko kide egiterakoan emandako arrazoia

“Prentsa libre eta euskalduna izateak jendarte libre eta euskalduna indartzen laguntzen du. Euskal Herriko zein iraultzailek ez du halakorik nahi?”

Ion Erro Arbizu (Barañain)

ARGIA Jendea

“Hedabide euskaldun eta independentea laguntzea”

Garbiñe Darceles Tife (Hendaia)

ARGIA Jendea

“Euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten duelako ARGIAk. Ikuspuntu kritikoarekin, gai interesgarri ugaritan sakonduz eta irakurleari ‘argia’ emanaz. Mila esker egiten duzuen lanagatik”

Xabat Laborde Etxabe (Billabona)

ARGIA Jendea

Sarean arrantzatua

Cristina Enea

@cristina_enea

@argia aldizkariak ingurumen gaiak lantzen dituen moduaren #osofan gara eta #esanbeharguenen.

maria glez gorosarri

@albistetan

ETAren azken komunikatuaren inguruko iturri maskulinoen presentzia desproporzionalaz, Onintza Odriozola Irizar EHUKo irakaslearekin inork hitz egin du? [Eztabaida mamitsua eman zuen, ARGIA ere aztertuz. Ikusi Twitterren].

Andoni Tolosa Morau

“Diskoa zabaltzean ikusi dut jende askok duela beharra zaintza lanetan bizitakoak partekatzekeo”

Amaren alzheimerra zela-eta, goizero harekin ibilaldia egiten hasi zen Andoni Tolosa 'Morau' kantagile hernaniarra. Saio bakoitzean argazkia egin eta *Egunsentiak alperrentzat* izenarekin sarean zabaltzea erabaki zuen gero. Izen bera eman dio ama zaintzen bizi eta ikasitakoak kontatuz osatu duen diskoari. Bere lanik intimistena egiten ari zelakoan, inoiz baino disko sozial eta unibertsalagoa geratu zaio.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Argazki sorta batek ematen dio izena diskoari. Asko izan ginen argazki horiei begira zein berandu esnatzen garen ohartu ginenak...

Bageneramatzen urte batzuk amak eta biok paseatzen. Elkartzen ginen 7:30ean, Santa Barbara igotzeko, beti bide berbera errepikatuz. Facebooken orduantxe sortu nuen kontua, mugikor berria ere banuen, eta hasi nintzen argazkiak ateratzen. Kristoren egunsentiak ikusten genituen eta pentsatu nuen ideia ona zela beranduago esnatzen zirenei egunsentia erakustea. Horregatik *Egunsentiak alperrentzat* izena. Denborarekin bihurtu zen joko bat, zerbait esanguratsua niretzat eta amarentzat, nolabait arintzen zuena egiten ari gina.

Noiz bihurtu ziren argazki horiek disko batentzako aitzaki?

Hasieran dena zen beldurra, ezin ohi-tzea... Bat-batean ardura berri asko nituen, egoera ez zen batere garbia... Argazkiak ateratzen hasi nintzenerako

pixka bat buelta emana nion horri. Argazkiekin txip aldaketa egin eta pentsatu nuen bizitzen ari nintzenak merezi zuela jasotzea, nolabaiteko lekukotasunak hartzea. Esaldi batzuk idatzi nituen, zirriborroak... Eta gero horiek izan dira diskoaren oinarria.

Abesti zerrendak zure amaren gaixotasunaren kronika osatzen du, orden kronologikoa ere jarraituz.

Ziur asko haxe izango da nire diskorik literarioena, bai. Zuzenekoetan kasik badu nobela txiki baten antza. Hartu nuenez lekukotasunak jasotzeko lana, material asko pilatu nuen. Material hori ordenatu nuen idatzi bezala, oinarritzko ideia idatzi nuen garaiaren arabera, eta gero abestiak egin. Ibilbide kronologiko bat erakusten dute, hainbat urtetakoa.

Argazkiek askotan erakusten digute errealitatea dena baino ederragoa. Kasu honetan, abestiek zuk bizitako hori edertuta erakusten dute?

Saiatu naiz ahalik eta efektu eta eder-

garri gutxien sartzen, bizi bezala kontatzen. Beti dago elaborazio bat, hala ere. Niretzat oso urte mamitsuak izan dira, asko ikasi dut, asko eragin diot buruari... Eta nahi edo ez, horrek badu eragina. Denborarekin gauzak beste modu batera ikusten dituzu; baina saiatu naiz hasierako zirriborro edo ideia horien mamia mantentzen.

Gaitzari larritasunik kendu gabe, horri heltzeko ahots berezi bat aurkitu duzu. Ez nuke esango atsegina, baina bai, nolabait goxoa, gertukoa.

Erraza da minetik eta epikatik kontatzeko tentazioan erortzea, baina jendeak eskertu dit hori ez egin izana. Irakurri nituen Miguel Gallardoren bi komiki, *Maria eta biok* eta *Mariak 20 urte bete ditu*, eta izugarri gustatu zitzaizkidan. Marrazkilariak bere alaba autistarekin bizi duena kontatzen du, den dramatikoan, baina den errealean, den gozoan une batzuetan, den barre-garrian beste batzuetan... Hori irakurri nuenean pentsatu nuen nik ere tonu



bertsuan nahi nuela kontatu amarekin bizitakoa. Nire estiloa, dena den, beti izan da hori: xamurtasuna, gertutasuna, egunerokotasunaren xehetasunekiko arreta... Disko honetan, horrek guztiak bat egiten du.

Gizonezko bat zaintzen, eta zaintzaz. Ez da ohikoena. Presente izan duzun zerbait da?

Egia esan, hasieran ez. Baina goiz batean aita eta amari gosaltzen eman eta gero lanera nahiko pozik nindoala, pentsatu nuen: "Nora hoa hi, munduko emakumeen %85ak egin dik gauza bera, eta inork ez die estimatuko, ez eskertuko, ez ezer". Sekulako oihartzuna lortu dut proiektu honekin, eta horretan badu zeresana gaiak, baina baita gizonezkoa izateak ere. Zaintzaren gaia publiko egin da gizonezkoak ukitu gaituenean. Nahi edo ez hor badago genero-irakurketa bat. Baina kasu honetan, rola aldatzea-rena ez da bilatu dudana zerbait izan. Norbaitek egin behar zuen zaintza lan hori eta niri tokatu zitzaidan. Eta kantak egiten ditudanez, kantetara eraman dut gero bizitako hori.

Behe-lainoa (noraiza) kantan irudi txikiekin adierazi dituzu sentimendu handiak: puzzle arraro bat, lorategi ospela, bazterreko botikin hutsa...

Aspaldi galdu nion gustua operari eta epikari. Baina amarekin ikasi nuen begirada oraindik gehiago zorrozten. Gure amak begirada fokalizatu egin zuen Alzheimerrarekin. Berarekin paseatzea zen ikustea txingurriak, paper bat han botata... Hori zen bere mundua. Horrelako gauza txikiak, niri behintzat, tresna oso baliagarriak izan zaizkit gaiak hitz egiteko. Bestela kontatu ezingo nituzkeenak kontatu ditut horrela.

Irakurgaiak kantak ere oso irudi garbi batekin uzten gaitu. Zure ama oso modu zuzenean aipatzen duzu kanta horretan.

Gure ama bide guztian burua makurtuta ibiltzen zen, eta Zinko-Enean altxatzen zuen burua. Han pankartak jartzen hasi ziren duela lauzpabost urte, eta hasten zen pankartak irakurtzen. Berriz makurtzen zuen, jarraitzen zuen aurrera, eta autobus bat gurutzatuz gero, berriro igotzen zuen bertakoa irakurtzeko... Izugarria iruditu zitzaidan irudi hori, frogatzen zuelako gauzak ahaztu arren bazuela oraindik ikasteko gogo.

» "Sekulako oihartzuna lortu dut proiektu honekin, eta horretan badu zeresana gaiak, baina baita gizonezkoa izateak ere. Zaintzaren gaia publiko egin da gizonezkoak ukitu gaituenean. Hor badago genero-irakurketa bat"

» "Daukadan oihartzun txikiarekin askatasun osoa dut nahi dudana egiteko"

» "Nire sormena ez da kantetan bukatzen, diskoa musika baino gehiago da: bada objektua, baina bada baita ere zerbait kontatu beharrekoa, eta horretarako erabili ditut interesatzen zitzaizkidan eta eskura nituen kanal guztiak"

» "Memoriari hainbeste garrantzi eman beharrean, uste dut arazoa sortzen dela oroimen berriak sortzeko gaitasunik ez dugunean. Hori da gogorrena"

Inoizko diskorik intimoena egin duzu, baina aldi berean, oso soziala den gai baten bueltakoa. Lehenago edo beranduego, denok ukitzen gaitu.

Hori ezuste handia izan da. Nik buruan nuena zen oso disko intimista egiten ari nintzela. Gero konturatu naiz, diskoa kaleratu ondoren eta emanaldiekin hasita, jende askok duela gogoa eta beharra halako esperientziak partekatzeke. Zaintza bada azpikontratatzan dugun maitasun mota hori. Bihurtzen da gure bizimoduan halako torpedo bat dena hausten diguna: ez gara iristen, ez dugu denborarik... Horren aurrean jarrera ezberdinak daude, eta nik horrela egin diot aurre. Jende askok esan dit, diskoak kontatzen dituen pauso guztiak, banan-banan, bizi dituela berak. Norbaiti lagundu badio, ez da gutxi.

Gustatu zait *Bi argazki* abestian irudimenaz eta oroimenaz hitz egiteko modua. Nola egiazkotasuna hain garrantzitsua ere ez den.

Oroimena azken urteetan asko aipatzen dugun hitza da, zer esanik ez hemen. Baina konturatzen zara, azken batean memoria ez dela pentsatzen dugun bezain zientifikoa eta zalantza ezina. Amarekin argi ikusi dut hori. Memoriari hainbeste garrantzi eman beharrean, uste dut arazoa sortzen dela oroimen berriak sortzeko gaitasuna ez dugunean. Bi lagun joaten bagara mendira eta zerbait gertatzen bazaigu, ziur handik bi astera bi bertsio oso desberdin ditugula. Memoria bakar bat ez dago. Alzheimerra esaten dizutenean beldur nagusietako bat da: noiz ez nau ezagutuko? Baina gogorrena hori da, irudimena eta oroitzapen berriak sortzeko gaitasuna galtzea.

Disko hau bakarrik egin duzu, Beñardo Goietzek ohi baina gutxiago lagunduta. Hala eskatzen zuen proiektuak?

Oso gordina da horrela esatea, baina gure amaren zaintza prozesua amaitu arte ez nuen denborarik honekin jartzeko. Behin bukatuta, aprobetxatu dut Beñardo Mugaldekoak-ekin zebilela, hau bakarrik egiteko. Hala ere, Beñardo oso presente dago diskoan. Sekulako ahotzak gehitu dizkio, eta proiektu guztian egon da laguntzaile eta aholkulari bezala. Uste dut, hala ere, erabaki zuzena izan zela bakarrik egitea, horrek sekulako askatasuna eta lasaitasuna eman dizkit.



Gero eta gehiago azpimarratzen da eraldatzeko gaitasuna ez dagoela mezuetan, egiteko moduan baizik. Zuk zeuk prozesuari eta moduari garrantzia handia ematen diozu.

Hori erabaki kontzientea da. Musikariok hartzen ditugun erabaki txiki askoren atzean badago ideologikoa den zerbait: *Creative Commons* lizentziapean zabaltea, sarean deskargatzeko aukera jartzea, disko fisikoak eskuz eta auzolanean egitea... Ez da estetika hutsa. Esan eta aldarrikatzen dugun hori nolabait sostengatu behar dugu. Uste dut hori dela modu onena kantariak gure komunitate eta inguruan itzala eta eragina izateko.

Zer leku du Morauk euskal kantagintzan? Galdera hori egin omen zenion zure buruari...

Batetik, konturatu nintzen egiten dudan guztiarekin gozatu behar dudala, emaitzaren zain egon gabe. Zeren agian, ez da emaitzarik izango. Eta bestetik daukadan oihartzun txikiarekin askatasun osoa dudala nahi dudana egiteko. Ez dudala egon behar musikariaren baldintza komertzialen menpe, ezta baldintza politiko edo bitalen menpe ere. Nahi dudana egin dezaket, eta hori zorte handia da. Hausnarketa horietatik sortu zen *Arrainentzako himnoak*, eta bide beretik egin dut oraingo hau ere. Interesatzen zaidan jendeari eta

interesatzen zaidan giroetan eragiteko asmoarekin.

Adinkide dituzun musikari askok diote oso neketsua egiten zaiela sarearen etengabeko komunikazio eta promozio lana. Zuk aldiz, naturaltasunez egiten duzu lan hori.

Niretzat tresna izugarria izan da internet, bere zabalean. Musikari minoritario batentzat, oso eraginkorrak dira sareak. Niri, batez ere blogak lagundu dit. Ez naiz gai nobela bat idazteko, baina blog sarrerekin gauza asko kontatu ditzaket. Nire sormena ez da kantetan bukatzen, tartean sortzen dira zer kontatu gehiago, eta bloga da horrentzako tokia. Kasu honetan, diskoa musika baino gehiago da: bada objektua, baina bada baita ere zerbait kontatu beharrekkoa, eta hori kontatzeko erabili ditut interesatzen ziztzaizkidan eta eskura nituen kanal guztiak.

Zuzeneko batzuk eman dituzu dagoeneko. Zaila da hain kontakizun pertsonala taula gainean defendatzea?

Erronka handi xamarra izan da. Nire apustua da diskoa dagoen bezala jotzea, nobela bat edo pelikula bat balitz bezala, historia osoa kontatuz. Horrek oso zaurgarri egiten nau, eta ez nago ohituta. Nire ingurune naturala taberna da, eta baditut nire tresnak, baina hau kontatuz, ez da erraza gaueko hamabietan garagardo bat hartzen ari denaren interesa piztea. Hala ere, jo dut pare bat tabernatan, eta oso esperientzia politikak izan dira. Badago jende bat ni entzutera etorri dena gaia hau delako, eta horrek ere asko errazten dit lana. Gero etortzen zaizkit eskertzer, haien historia kontatzer... ■

Uda euskaraz!

ekainetik aurrera
Bakaikun eta Bilbo erdian

Gabriel Aresti
euskaltegia

- Batxilergoko ikasleentzako B2, C1, EGA
- Mintzamena eta azterketak prestatzeko
ikastaroak eta barnebegiak

www.gabrielaresti.com - Oposaketetarako euskara - Autoikaskuntza...

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ikonoklastaren ajeak



Igor Estankona

Ez dakit hau den Leire Lopez Ziluagak Susako editore lanak hartu dituenetik orraztu, begiratu, zuzendu duen lehen liburua. Argitaletxeen barneko kontuok ez dakizkit. Dena dela, erraza behar zuen izan edizio lanak: Karlos Cid Abasolok argi dauka pieza bakoitzari zer itxura eman, zer erritmo, zer hitz aukeratu. Itzultzaile ibili da Hasekena, Holubena, Kunderarena.

Berezkoa dauka. Gogorra dena itxuraz poesia egiteko bere modu xamurra da. Eta nobleak dira bere amorruek, garbia bere begirada: “Oihu egin gabe gelditu ziren/ ilarakoak,/ eman gabe gelditu da/ bart gaueko musu arrotza/gaua hustu ez zedin/ akaso,/ putzuz bete zedin/ igual”.

Hizkuntzaren hibridismoa bezala kulturaren hibridismoa ere kritikatzeko du idazleak –“sama moztuko nioke,/ bai,/ porrusalda porruz egiten dela/ aldarrikatzen duen/ edozein fariseuri”- baina badauka asmo bat zabala, asmo bat multikulturala, zapora bat garamatzana orain Lisboara, orain Pragara, folkloreaken aurka baina euskalduntasunaren alde.

Lan honetan poeta hasiberria aurkituko duzu, poeta heldua aurkituko duzu. Indiferente behintzat ez zaitu utziko. Lehen aldiz paper batean zirriborroak egiten ari den idazlea kausitu dut uneka orrialdeotan, zorakeria puntu horrekin, emozioak ezin ostenduz.

Darabiltzan lanabesak dira ironia eta paradoxa, errespetu falta eta metafora aski ezagunen errebisioa: “Eskuak eba-


Keinu konplizeak

KARLOS CID ABASOLO

Susa, 2018

Karlos Cid Abasolo (Madril, 1963) hizkuntzalaria da. Hau du lehen poesia liburua.

DANI BLANCO.



kiko dizkidate,/ eta besoarekin defendituko dut Pretty Woman”. Horrek guztiak bihurtzen du *Keinu konplizeak* sano obra bizia, sorpresaz beterikoa eta aberatsa. Eta hain zuzen horrek guztiak egiten du nabarmenegia, baragarria.

Liburu hau jolas antzeko bat da, zeinean poesiaren asmo gorenak eta xelebrekeria inozenteenak jartzen diren parez pare: “Baldin eta egingo bazenu/ poema liburu hau erosteko/ keinu heroikoa”. Karlos Cid Abasoloren asmoa da ikusaraztea zenbat txori daukagun buruan, kapaz da materiala sortzeko eguneroko keinuetan arakatuz, eta kapaz da zoriona aurkitzeko gauza naifenetan. Liberatzeko idazten du, maitemintzeko idazten du. Gauza da hortik liberatzera, hortik maitemintzera, bide handia dagoela. ■

» DISKOA

Gorde eta zabaldu gertatutakoa



Iker Barandiaran

40 urte bete dira Polizia armatuak Iruñean San Fermin jaiak ospatzen ari zirenean zezen plazara tiroka sartu eta herrian zegoen askatasun egarria itotzeko ahalegin sutsua egin zue-netik. Eraitza: su armazko hamaika zauritu eta German Rodriguez gaztea eraila. Jakina, ez dute inoiz inor izugarrikeria horregatik epaitu ezta zigortu ere.

Iruñean eta beste leku ugarian, ordea, jendeak ez du sarraski hura ahaztu eta egia, justizia eta erreparazio bila salatzen jarraituko du etsi gabe. Testuinguru horretan, Gor diskoetxe beteranoko kideei eta hurbileko lagunei bururatu zitzairen musikaren bidez ere Germanen eta gertatutakoaren memoriari eutsi eta belaunaldi gazteagoei jazotakoa helaraztea. Esan eta egin, Gor diskoetxeko kideek ohi duten bezala atzoko eta gaurko musikariak erakarri dituzte proiektura eta Nafarroako hamar musika ekimen batu dituzte bilduma honetan. Disko gogoangarri honek izango dituen etekin guztiak "Sanfermines 78 Gogoan" ekimenera bideratuko dira.


Hamar kanta horietatik hiru ez dira berriak, baina horien hitzak bat datoz gertatutakoarekin eta salaketarekin: La Venganza de la Abuela izan zen El Drogas musikari ezagunak 90eko

San Fermín 78 gogoan

ASKOREN ARTEAN

Gor, 2018

Balerdi Balerdi taldeko kideak.
"Ahaztezina da" pieza ekarri dute diskora.



hamarkada bukaeran sortu zuen proiektua, eta *Zua* kaleko aldarri metaleroa; La Chula Potra raperoak idatzitako *German* pieza (eta testu) ikaragarriak ez du iraungitze datarik; ezta memoria historikoaren ahots leun eta sentikorra den Fermin Balenciak eta haren *Hilarria* triste baina itxaropentsuak ere.

Gainontzean ez dira falta rock amerikarra erabat nafartu eta euskal poparekin ezkontze-ko gaitasuna duten Balerdi Balerdi taldekoak –*Ahaztezina da* piezarekin–; hardcore melodikoaren sua itzaltzen inoiz utziko ez duen

Leihotikan –*Zakurren dantza madarikatua*–; indarra, gaitetasuna, punka eta leku(n) berriren bat oso presente duen Altxatu sasotsua –*Kantu bat*–; street-punk edo punk-Oi!a lanabes duten Sofokaos –*Bala bat*– zein Streetwise –78 pieza– talde grinatsuak; bertso eskaintza egin duen Iruñea Soviet Band; eta ekimen honetarako espresuki elkartu den antzinako Los Del Rayo: rock kale-tarra eta iraganeko tempoak maisuki berpiztu ditu taldeak *Los hombres de gris* interpretatu eta grabatzeko. ■



Bilboren arima beltza

THE CHERRY BOPPERS TALDEAREN KONTZERTUA

Maiatzaren 4an, Bilboko Kafe Antzokian. *For Dancers Only* diskoaren aurkezpen emanaldia.



Dabi Piedra

Publikoa dantzan jartzeko agindupean kaleratu berri du The Cherry Boppers talde bilbotarrak disko berria, *For Dancers Only*, eta iragarritakoa praktikan jartzeko eguna izan zen maiatzaren 4a, Bilboko Kafe Antzokian. Luzaroan zuzenean jo gabe egon eta gero, taldea berriro taula gainera igo zen. Zapore ipar-amerikarreko gaua izan zen, aurretik The Reverendos-ek jo baitzuen, Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko rock&roll oihartzuna duen taldeak. The Cherry Boppersen estiloa, ordea, funk eta groove-an oinarritzen da gehiago.

Musika beltza ez da euskal taldeen artean ohikoena, originaltasuna aitortu behar zaio taldeari. James Brown eta konpainiaren urrezko aroaren berreraikitze bat da The Cherry Boppers, doinu eta jarraz. Biniloan ere ateratu dute *For*

Dancers Only, norbaitek nostalgiaren pack osoa nahi balu. Baina Bilbon erakutsi zuten, publiko garaikidea kateatzeko gai dira.

Haien sekretua musika pasioz bizitzea da. Zortzikotea oholtzara igo zenean, publikoak Bilbon zegoela ahaztu zuen eta 1970eko hamarkadako dantzaleku batean agertu zen, tronpeta, saxofoi eta teklatuaren nahasketa magikoari esker. Afro erako iletik ez, baina alkandora koloretsuak eta azpialde zabaleko prakak zeramatzaten taldekideetako batzuek.

Talde instrumentalak da The Cherry Boppers, noizean behin ingelesezko lelo itsaskor batzuk tartekatzen dituzten arren, baina abesti leun bat jo zutenean garbi asko esan zuten mikrofonotik, euskaraz, ondo uler zedin: "Ondokoa besarkatzeko azken aukera da hau". Handik aurrera, gerria mugitzea beste aukerarik ez zieten utzi entzuleei. Hala ere, euskaldunen zurruntasun topikoa gorabehera, kosta zitzaion jendea kon-

bentzitzea; azkeneko ordea, inor ez zen gelditu egon.

Deigarria izan zen, era berean, Kafe Antzokiko agertokia nola bete zuten, doinu itsaskorrez ez ezik, musikariz ere. Une oro, zortzi taldekide egon ziren elkarrekin jotzen, eta horri kolaboratzaileak gehitu zitzaizkion. Dudu Duchena izan zen horietako bat, taldearen nortasun instrumentalak apurtzera etorritako abeslaria. Ahots iradokitzaile eta indartsu, kontzertua soul eta jazzera hurbildu zuen une batez.

Ia hamabost urteko ibilbidea bete duen arren, The Cherry Boppers oraindik saioiko dagoela frogatu ahal izan genuen Kafe Antzokiko kontzertuan, norbaitek zalantzarik bazuen. Freskotatzen galdu gabe, beren esentziari eutsi diote, eta hori ez da erraza Euskal Herrian ospe urria duen estiloa landuz gero. Lasai asko esan dezakegu entzuleen arima beltza biziberritu eta edozein areto dantza-leku bilakatzeko gai direla. ■

Gala Pin. Ekintzailea politikan



Filosofia ikasketak dituen arren, kaleko borroketan eskolatutakoa da Gala Pin (Valentzia, Herrialde Katalanak, 1981). 2003an utzi zuen jaioterria Bartzelonako auzo mugimenduetan murgiltzeko, eta 2015eko maiatzetik Bartzelonako Udalean En Comúko zinegotzia da.

“Legedia aldatu behar da, espekulazioa sustatu ordez, zigortzeko”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Kanonei uko

“Bartzelonako Udaleko zinegotzia izan eta neure herriarentzat lan egitea pribilegio bat da. Hiru urte hauetako esperientziaren ondotik esan dezaket baietz, erakundeak mugak dituela. Baina herritarren eskakizunei erantzun eta gauzak aldatzea posible da, batez ere, gobernu osatzen dugunok hamaika borroketan hartutako eskarmentuari esker. Okerrena, politika instituzionala izan da, alderdi interesen logikak ulertzea izugarri kostatzen da.”

MK Premium enpresak TV3 eta Facebooken egin zenituen adierazpenengatik irain eta kalumnia delituak egotzi dizkizute. Apirilaren 17an deklaratu zenuen. Nola joan zen?

Nire adierazpenek islatzen dituzte Bartzelonan etxebizitzaren espekulazioan nagusi diren dinamikak. Zinegotzi naizen heinean, herritarrei MK Premium bezalako enpresek baliatzen dituzten engaiuak ezagutzera emateko eskubidea eta betebeharra dut. Auziaren artxibatzea eskatuko dugu, irain eta kalumnia deliturik ez dagoelako. Epaileak artxibatzea onartzen badu, amaituko da, eta bestela, froga gehiago aurkeztuko ditugu.

Deklaratzera joan aurretik, 3.000 euroko kalte-ordaina eskatu zizuten, adiskidetze egintzaren bitartez.

Horretarako ezinbestekoa zen barkamena eskatzea, eta noski, uko egin nuen. Orain, aldiz, ez dute zifrarik jartzen: azaltzen dute nire adierazpenek galdera ekonomiko handia ekarri dietela, eta beraz, zenbatu beharko dela. Argi dago, 3.000 eurotik gorako kalte-ordaina eskatuko dutela.

Bartzelonan etxebizitzaren espekulazioari lotutako praktika horiek geroz eta ohikoagoak dira. Nola eragotzi daitezke?

Arazo nagusia da, MK Premium bezalako enpresek praktika txarren bitartez baina legediaren baitan joka dezaketela; eta enpresa batek, etxebizitzaren negozioaz informazio gehiegirik ez duen solaskide bat kontratu etena sinatzeko konbentzitzen badu, legezkota dela. Ezinbestekoa da legediaren aldaketa, espekulazioa sustatu ordez, zigortzeko. Hori ez da ameskeria, Europako hainbat herrialdetan egiten dute. Etxebizitza lehen mailako beharra da eta ez salerosgai bat.

Ada Colaren aginduetako bat izan zen herritarren etxebizitza ziurtatzea. Aldiz, 2017an 2.500 kaleratze egon ziren. Zein izan dira zailtasun nagusiak?

Kaleratzeen zifrek behera egin dute, baina nahi baino gutxiago. Arazo nagusia da, kaleratze gehienak alokatze kontratuetan dutela jatorria. Beraz, legea aldatu beharra dago, baina, zorituraz Madrilgo Gobernuaren ardura da hori. Kontuan hartuta duela gutxi, alokatzaileen eskubideei mesede egi-



tetik urruti, jabeen interesen aldeko lege proposamen berri bat onartu dutela Kongresuan, hobetzeko aukera gutxi ikusten dugu. Beraz, Estatuak arazo honen irtenbiderik ez badu aurkitzen, eskuduntzak gure esku utzi beharko litzuzke. Baina ez dago modurik, legedi bat dugu hiru urtetik behin alokairuaren bereizkuntzarik gabeko igoerak bermatzen dituenak.

Kritika zaparrada jaso duzu, zinegotzia izan eta Twitterren herritarrak deitzen dituzulako kaleratzeak etetera...

Giza eskubideetan gobernu guztiek ditugu eskuduntzak, horregatik egiten dut; eta beraz, zerbitzu publikoen bitartez sustatzen ditugun baliabideak motz gelditzen badira, bateragarria da hiritarrei dei hori egitea. Jende askok ez ditu ezagutzen kaleratzeen erantzule nagusiak eta gobernu hingatzeak saiakere ez dute etenik izan erakundeetara iritsi ginenetik.

Barcelona en Comúko zinegotzia izanik CUP bozkatu zenuen 2015eko irailaren 27ko hauteskundeetan. Zergatik?

Mireia Vehí, Gabriela Serra eta Eulàlia Reguant bezalako emakumeak zeudelako zerrendetan. Niretzat ezinbestekoa zen ustelkeriaren kontrako apustu argia egiten zuen zerrenda hori babestea. Edozein modutan, gehiago egin nuen pertsonen balioa emanez, proiektuari baino. Erakunde politikan garrantzitsua da hori mantentzea.

Comúnak eta CUP, hala ere, ez daude hain urruti. Ardatz nazionalak urrundu ditu...

CUP kritikoagoa izan da politikoki gertu zituen Comúnekin, sistematikoki PPrekin itundu eta ustelkeriaz blai zegoen JxSí-rekin baino. CUPek egiten dizkigun kritikak gehiago dute zerikusia autoerreferentzialtasunarekin, aldaketa borondatearekin baino.

Partaidetza saileko zinegotzia zara. Zuzeneko demokrazia sustatu eta Bartzelonako elkarteek proposatutako multikontsultak jokoaz kanpo utzi zuen CUP apirilean. Zergatik?

Ezin dut CUPen jarrera ulertu. Hala ere, erratu zirela aitortu dute eta ospatzeko modukoa da, gutxitan gertatzen

"Mireia Vehí, Gabriela Serra eta Eulàlia Reguant bezalako emakumeak zeudelako zerrendetan bozkatu nuen CUP 2015eko irailean".

baita politikan. Egitasmoa sustatu zuten herri elkarteek salatu zuten haien jarrera eta osoko bilkura errepikatzea eskatu dute.

Zein irakurketa egiten duzu orain arte egindako lanaz?

Agintaldi bizia izan da: sei hauteskunde egon dira, azken 30 urteetako atentatu terroristarik bortitzena izan dugu, Generalitatearen esku hartzea gero, urriaren 1eko eraso, 155. artikularen aplikazioa, eta oraintxe bertan, gobernu osatzeko adostasunik aurkitzeko gai ez diren alderdi politikoak Parlamentuan. Hala ere, kontakizunari dagokionez, ezkutatuta gelditu diren politika berriak sustatzeko gai izan gara, eta, aspaldi-koak ziren herritarren eskakizunen zerrenda bat egingo bagenu, asko eta asko ase ditugula ikusiko genuke. ■



Xabier Madariaga, hari-mataza batekin jolasten ari diren bi katutxori begira.

Ur Handitan saioan elkarrizketatu eta negarrik egin ez duen pertsona bat aurkitu dute EHUko ikerlariek

EHUko Komunikazio Zientzien Fakultateko Nor-Nori-Nork ikerketa taldeak ezusteko aurkikuntza baten berri eman du prentsaurreko batean: *Ur Handitan* saiorako elkarrizketatu eta negar egin ez duen pertsona bat aurkitu dute. "Hasieran ez genuen uste posible zenik, gezurretan ari zela, baina zientifikoki frogatu dugu baietz". Prentsaurrekoan zen pertsona hori: Harkaitz Marmolategi du izena eta lagunekin pilotan jokatzeko

ari zela izandako istripuan begi bat galdu zuen; txakur basatiek eraso zioten gero, eta bi hankak erauzi; eta gainera diabetikoa da; eta Osasunakoa. "Programakoak nire bizitzaz galdezka etorri zitzaizkidan nire normal-normal erantzun nien", esplikatu die kazetariei. "Arraroa izan zen ze, Xabier Madariagak hamabost aldiz galdetu zidan nola sentitzen nintzen gauza horiek gogoratzean. Azkenean bera hasi zen negarrez".

SAREAN ARRANTZATUA

Tourist welcome!



Tourist come home!



Oharra: Aste honetako Beranduegin "Bermeo Tuna World Capital" ekimenari buruz hitz egin behar genuen, baina batzuetan errealitatea... *it's too hard for our body*.

"Baietza sortzen" leloarekin, ezker abertzaleak jada erabili ditu 'Izarren hautsa' kantako hitz guztiak

1980ko hamarkadan ezker abertzalearen ikur bilakatu zen Xabier Lete Eusko Alkatasunako traidore, poeta eta kantariaren *Izarren hautsa* ereserkiak eman du jada berea. Ez dago gehiago zukutzerik, Sortuk iragarri ostean "Baietza sortzen" lelopean egingo duela hilaren 19ko ekitaldi politikoa. "Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak", "ezaren guda", "ernai", "burruka", "ekin", "indarrak", "sustraiak", "sasi zikinak",

"aukeren jabe", "antxiduri", "diru zakarra", "bizitzen edergai"... guztiak baliatu dira jada, ez bada erakunde barruko erakundeak izendatzeko, mitinetan, txosten marduletan ala ekitaldi jendetsuen goiburu moduan. Eta bestela, eskelak-eta janzteko edo Whatsappe-tako perfilak osatzeko, badakizue, mendian ateratako egunsenti baten argazkia edota alaba-semeen irudi artistikoa apaintzeko.



DAGOENeko

180.000

Euskaltel WiFi puntu
baino gehiago ditugu




WiFi
is in the
AIR

- 📶 Nahi adina giga Euskadiko kaleetan.
- 📶 Euskaltelen mugikor-tarifako daturik kontsumitu gabe.
- 📶 Erabat DOAN eta gure bezeroentzat soilik!

BIZITZA
KALEAN
GERTATZEN
DELAKO

Oraindik egin ez baduzu, deskargatu hemen:



euskaltelwifi.eus



euskaltel

Patrocinador tecnológico:



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545